

Herririk Herri

Mugarrak lehenengo herri krosa antolatu du domekarako; arineketan eta patinetan egin daiteke > 16



Zelaieta berrizteko herritarren iritzia jakin gura du udalak

Zelaietako aldaketa urbanistikoen inguruko iritzia emango dute auzotarrek. Zelaieta oinezkoentzako egokitu eta eraberritzeko, milioi bat euro aurreikusi du udalak. Parte-hartze prozesua lau hilabeteetan egin nahi dute > 2



Baserritarrak kexu birsalmementagatik, udalak ez duelako merkatuko ordenantza aplikatu > 4

Protesta moduan 'Merkatu gardena' antolatuko dute zapatu goizean erosleei birsalmementaz informatzeko

Merkatu plazan birsalmementa desagertu ez dela-eta, kexu dira baserritarrak. 2012ko urrian udalbatzak onartu zuen ordenantzak debekatu egiten duen arren, udalak oraindik ez dela aplikatu diote baserritarrek. Merkatuaren kudeaketarako batzorde bat sortu da, eta saltzaileek ordezkari bi izango dituzte.

Oraindik ez dute batzarrik egin, baina. Protesta moduan, 'Merkatu gardena' postua jarriko dute bihar goizean. Birsalmementaren bidez saltzen diren produktuak erakutsiko dituzte bertan. Baserritarrek adierazi dutenez, informatzea eta arreta erakartzea dute helburu.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua Industriegunea 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Hostoentzako haize-makina



Motozerra



Zulagailua



Lorezaintzarako traktorea



Gasolinazko motordun aitxurra

Zaldibar > 2

Hiri Antolamendurako Plana herritarrei iritzia eskatuta

Elorrio > 3

San Antongoek diote udalaren galdeketa "adarjotzea" dela

Izurtza > 7

Apirilaren 27an bizileku berrien gaineko galdeketa egingo dute

Durangaldea > 6

San Eloy taldearen inguruko mozioa eztabaidagai, Elorrioren

Herririk herri

> **ABADIÑO**

Auzoaren eraberritzeari buruzko iritzia eskatuko dute

Zelaietaren “aldaketa urbanistikoaz” iritzia eman ahal izango dute auzotarrek



Jose Luis Navarro alkateak aurkeztu du datorren astean abiatuko duten parte-hartze prozesua.

> **ITSASO ESTEBAN**

Parte-hartze prozesua zabalduko dute, Zelaietaren “historiako eraldaketa urbanistiko handienari” buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko.

“Abadiño herri jasangarria bihurtzeko eta herritarren premietara hobeto egokitze” egingo dute proiektua, Jose Luis Navarro alkateak esan duenez. Milioi bat euroko diru atala bideratuko du Abadiñoko Udalak Zelaieta auzoaren eraldaketarako egitasmo hau gauzatzera.

Herritarren iritzia jasotzeko, sei tailer antolatu ditu hone-

lako prozesuetan esperientzia daukan enpresa batek: Txanpota kultur etxean egingo dituzte tailerrok, apiriletik ekainera. Esate baterako, mugikortasunaz eta generoaz jardungo dute saio horietan parte hartzen dutenek.

Alkateak azaldu duenez, 4 hilabetez luzatuko da udalak martxan ipini duen parte-hartze prozesua

Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, herriko elkarteei luzatuko diete batzar horietan parte hartzeko eta euren iritzia emateko gonbita.

Bestalde, udalak martxan ipini duen www.abadinopartehartze.participacionvirtual.com webgunearen bitartez ere izango dute herritarrek euren iritzia emateko aukera.

Azaldu dutenez, lau hilabetez luzatuko da parte-hartze prozesua, eta udalaren aurreikuspenen arabera, proiektua udazkenean esleitura, 2014 urte hasieran abiatuko dituzte obrak.

edo Durangoko Hitzen erabili dezakete. Aurtan, Euskal Herri osoko 24 herritan gauzatuko dute ekimena, iaz baino bederatzigehiagotan.

San Jurgi jaiak

Mallabiko Berano Txiki auzoan apirilaren 27tik 28ra ospatuko dituzte jaiak. Zapatuan, 17:00etan, ermita atonduko dute auzolanean. 19:00etan, donien-atxa ipini eta afarian bilduko dira. Domekan, berriz, meza eta gero, Gazte Alai taldeak dantzan egingo du. Bertsolarien ostean, umeentzako jolasak prestatuko dituzte. Arratsaldean, umeen jolasak, herrikirolak eta Agarrera osteria izango dira.

> **ZALDIBAR**

Hiri Antolamendurako Plana herritarrekin berriztu gura dute

Zaldibartarren parte-hartzeagaz berrikusiko dute Zaldibarko Hiri Antolamendurako Plana

> **ITSASO ESTEBAN**

Zaldibar eitten! prozesua aurkeztu du udalak asteen. Arantza Baigorri alkateak, Rafa Urizar zinegotziak, eta prozesua dinamizatuko duen Hiri Kolektiboko Koldo Telleria eta Flor Savanti teknikariek luzatu diete herritarrei Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren parte-hartze prozesuan jarduteko gonbita.

Koldo Telleriak azpimarratu duenez, urtebete iraungo du prozesuak, eta datorren astean abiatuko dute: herriko lurzorua zelan antolatu erabakitzea da prozesuaren helburua, eta hogeitazazpi lagunek osatutako taldeak bideratuko du: arkitektoak, ingeniariak, soziologoak, ambientalistak eta antropologoak. Telleriaren berbetan, “Jakintza teknikoa herritarren ekarpenekin abe-

rastea gura dugu: guk baino jakintza askoz zabalagoa dute zaldibartarrek herriko eguneroko bizitzari buruz, eta kontuan hartu beharreko ekarpenak egin ditzakete”.

Hiru ardatzen inguruan jardungo dute prozesuaren lehengo fasean: hirigintza, sozioekonomia, eta ingurumena. Proposamenak egiteko tartea zabalduko dute bigarren fasean; eta herri kontsulta deitutako dute azkenengoan.

Aurkezpena, egunean

Apirilaren 25ean egingo dute ekimenaren aurkezpena. Hitzordu horretara bertaratu eta “Zaldibarren etorkizunean aktiboki parte hartzeko” proposatu diete herritarrei. www.zaldibareitten.com webgune-tik zabalduko dute aurrerantzean informazio guztia.



Arantza Baigorri, Koldo Telleria, Flor Savanti eta Rafa Urizar.

> **MALLABIA**

Irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoa jarri dute abian

Orraittiok eta Topaguneak antolatu dute; guraso elkarteak eta liburutegia dituzte laguntzaile

> **JONE GUENETXEA**

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen duen Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa Mallabira heldu da aurtan. Orraittio euskara elkar-tea da herrian ekimena martxan jarri duena. Guraso elkarteagaz eta liburutegiagaz elkarlanean, liburuak euskaraz irakurri eta oparitzeko aukera eskainiko dute. Apirilaren 23tik ekainaren

30era, udal liburutegian liburu bat maileguan hartu eta irakurtzea proposatzen dute. Ondoren, irakurleak liburuak bueltatu eta fitxa bat bete beharko du. Fitxa beteta, liburutegia %25 edo %50eko baliodun erosketa-txekia emango dio, hitzartutako liburu dendan erosteko. Azken pausoa, liburuak oparitzea da. Erosketa-txekia Ermuko Mari-bel eta Xiripot liburu dendetan

Santamañezarrera igoko dira Castet Egunez

Domekan egingo dute urteroko oroimen ibilaldia

> **I.E.**

“Euskal Herriaren alde borrokan jausitakoei gorazarre egiteko” antolatzen dute duela 21 urtetik Castet Egunezko egitaraua. 1937ko apirilaren 25eko Santamañezar mendiko borroka gogoratzen dute urtero egun horretako ekitaldietan: berrogeiren bat gudari eta miliziano hil

zituzten mendi horretako batailan. Castet elkartearen eskutik, domekan izango da aurtengo hitzordua. 10:00etan abiatuko dute udaletxeko plazatik Santamañezarrerainoko ibilaldia. Ekitaldi nagusia 13:00etan egingo dute, Castet elkartearen aurrerantzean, eta ondoren bazkaria egongo da, elkartean bertan.

> ELORRIO

San Antongoen ustez, udalaren galdeketa “adarjotzea” da

Industriaguneaz galdetu eta bizilagunenganako inpaktua gutxitzea da udalaren helburua

> M. O.

Pulla-Azkarretako industriaguneari buruzko iritzia eskatu du asteon udalak. Bizilagunenganako inpaktua gutxitzea dute helburu, Joseba Mujika alkateordeak esan duenez. Esaterako, industriaguneko lehenengo eraikinaren sabaia etxeen altueraz azpitik geratu-ko litzateke. Auzokoak batzen dituen plataformak, San Anton Bizirik, adierazi du ingurunea zelan eraiki galdetzen ibili direla, eta hori “adarjotzea” dela uste dute. Dokumentu bat banatu dute herriko postontzietan, eta EAJ kritikatu dute. “Momentu honetan, Pulla-Azkarreta industriagunean gereziozko ala izeirik, teilatu

berde ala metalikorik nahi dugun galdetzea burla egitea dela iruditzen zaigu”.

Plan orokorraren baitan

Lur horiek, Spirilurrek –Eusko Jaurlaritzaren menpekoa, enpresa sektorea sustatzea du helburu– erosi zituen 2002an. Industriagunea, Hiri

Auzo Koordinadorak ohartarazi du Plan Orokorra errekurritu zuela epaitegietan

Antolamendurako Plan Orokorrean zehaztu zuen udalak 2011n. Elorrioko Auzo Koordinadorak ohartarazi du Plan Orokorra errekurritu zuela epaitegietan –bide administratiboa amaitu zenean–, eta oraindik ez dagoela sententziarik: “Zergatik dauka Spirilurrek hainbesteko premia orain?”. Mujikak adierazi du, proiektuaren txosten teknikoa abuztua aurretik batzordean lantzea itxaroten dutela.

Lurzoruen gaineko eskaera

Plataformak eta koordinadorak bat egin dute eskaera batean: industriarako, landa eremuak beharrean, baztertua edo hutsik dauden pabiloi eta industria lurzorua erabiltzea. Esan dute hamazazpi hektarea daudela baldintza horietan. Durangaldeko Lurraldearen Zatikako Planean irizpide berbera agertzen dela diote, argudioa indartzeko.

Atzo, herriko plazan ipini zuen udalak informazio karpa, eta koordinadorak ere bere iritzia azaldu zuen bertan.



Udalaren eta Auzo Koordinadoraren informazio mahaiak, atzo, plazan. Z. Fuertes

Athleticeko jokalaria eta ikasleak, euskaraz berbetan

Lourdesko Aman futbolarien bisita izan dute

> M. O.

Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleek Ander Iturraspe eta Iñigo Ruiz de Galarreta Athleticeko jokalaria bisita izan zuten eguaztenean. Eskolaz kanpo euskararen erabilera indartzeko ikastetxean garatzen dabilen dinamikaren barruan egin zuten

bisita. Ikasleek egindako galderi erantzun zieten zuri-gorriek.

Gainera, Vicente Ferrer ongintza fundaziokoek ere egin dute bisita. Datorren ikasturtetik aurrera, ikasleekin lankidetzan egin gura dute. Bestalde, hilaren 24an lana aurkitzen laguntzeko ikastaroa emango dute.



Athleticeko jokalaria, Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleekin, eguaztenean.

‘Parot doktrina’ indargabetzeko eskatu dute Bilduk eta EAJk

> M. O.

Elorrioko Udalak 197/2006 doktrina, ‘Parot doktrina’ legez ezagutzen dena indargabetzeko eskatu du. Bilduk aurkeztu zuen mozioa eguaztenean udalbatzarrean, eta EAJk babestu egin zuen. Joseba Mujika, alkateordea: “Bizi dugun egoera honetan ez dela lagungarri uste dugu”. PPko Carlos Garcia zinegotziak aurka egin zuen, baina bere botoa azaltzeko berba hartu barik. Doktrina horrek presoan zigorrak luzatzea dakar, eta Elorrioren bi daude egoera horretan: Anton Lopez eta Felix Zabarte.

Bestalde, Herriak presoan eskubideen aldeko erromeria eratu du domekarako. 18:00etan hasiko da Labakuan.

Eleizaldeko kirol proiektua, 2014an egitea aurreikusita

Elorrioko Udalak Kirolaren Plan Estrategikoa onartu zuen eguaztenean udalbatzarrean

> M. O.

Udalak Kirolaren Plan Estrategikoa onartu zuen eguaztenean udalbatzarrean. Herriko kirol jarduerak koordinatzea eta instalazioak beharretara egokitzea dute helburu, besteak beste. Esaterako, aurtengo udan kiroldegian lanak egitea aurreikusi dute –kantxak, aldagelak...– eta Eleizalden kirol gunea egiteko proiektua

Herriko kirol jarduerak koordinatzea eta instalazioak beharretara egokitzea dute helburu

2014ko udan –tartean, kanpoko igerilekuak–. Horrez gainera, Elorrioko ingurune naturala kirolerako erabiltzea ere sustatu gura dute, baita bidegorri sarea sortzea ere. Aitor Agirre zinegotziak (EAJ) azaldu zuen urtebeteko lana dagoela planaren atzean; diagnostikoa egin dute, eta datozen urteetarako lanildoak zehaztu dituzte. “Instalazioak, behar direnak eta kalitatezkoak izatea” gura dute.

EAJk eta PPk babestu dute plana. Bilduk ez, planaren aurka egon ez arren. Gobernu taldeak dio partaidetza prozesu bat garatu duela plana idazteko. Baina, Bilduren ustez, erabiltako modua ez da nahikoa izan, eta mezu elektronikoen bidez egin izana kritikatu dute.

Goizane Azpuri Maurtua

Kiromasajista

Drainatze linfatikoa
Masaje deskontrakturantea
Erlaxazio masajea
Ziatika, lunbalgiak, okerdurak
Aurpegirako KOBIDO masajea

%25eko DESKONTUA
lehenengo bisitan

San Inazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76



info@hitzliburudenda.com

Hemen agertu
gura badozu

deitu!



94 621 79 02

> DURANGO

Baserritarrek diote udalak ez duela merkatuko ordenantza aplikatu

‘Merkatu gardena’ egingo dute zapatuan; birsalmentaz informatuko dute



Udalak 2012ko urrian araudia onartu arren, oraindik ez dute aplikatu, baserritarren arabera. K. Aginako

Zortzi merkatarik lortu dute kalitatearen UNE ziurtagiria

Domekan eman zituzten UNE 175.001 ziurtagiriak; EAEko 53 komertzioak jaso zuten kalitate agiria

> M. O.

Joan zen domekan, San Agustin kulturgunean eman zituen Euskalitek (Kalitatearen Euskal Fundazioak) UNE 175.001 ziurtagiriak. Euskal Autonomia Erki-degoko 53 komertzioak jaso zuten agiri hori, tartean Durangoko zortzik: Royuela apainketak, Databost, K&M ileak, Montejo, Niko's, Lupa's, Pio-Pio eta El armario de Lola komertzioek. Kalita-

tezko arreta eta zerbitzua, eta pertsonalaren profesionaltasuna ziurtatzen ditu agiri horrek, azaldu dutenez. Horra bidean, komertzioen ugazabek ikastaro bat egin dute, eta lokala zein jarduera prozesuak egokitu dituzte.

Ekitaldian Dendak Bai elkarteko ordezkariak egon ziren. Gainera, erkidegoan eragina duen Euskaldendak elkarteko Bittor Lizarribarrek berba hartu zuen, eta sektorean egindako murrizketek ohararazi zuen. Jon Zarate Merkataritza zuzendariak diru atal berriak sortzeko konpromisoa hartu zuen.

Bestalde, Dendak Bai elkarteak iragarri du hilaren 30era arte %5eko deskontua egongo dela Durango Txartelagaz eginiko erosketetan.

Kalitatezko arreta eta zerbitzua, eta pertsonalaren profesionaltasuna egiaztatzen ditu agiri horrek



Ziurtagiria jaso zuten Durangoko merkatariek, Dendak Bai elkarteko kideekin.

Lancashireko ikasleak etorri dira, Jesuitek gonbidatuta

> AITZIBER BASAURI

Inglaterra Lancashireko Stonyhurst College ikastetxeko 14 ikasle Durangon daude egunotan, irakasle bigaz batera. San Jose Jesuitak eta Stonyhurst ikastetxeek egiten duten trukearen harira etorri dira, Durangoko ikastetxekoek azaldu dutenez.

Bertako ohiturak ezagutzeko eta gaztelania praktikatzeko aukera edukiko dute ingelesek

Durangoko ikasleen etxeetan eman diete ostatu ikasle horiei. Bisitaren arrazoiak azaldu dituzte arduradunek: bertako ohiturak ezagutzeko eta gaztelania praktikatzeko aukera edukiko dute ingelesek. Jesuitetako ikasleek, ostera, ingelese erabili ahal izango dute.

Bisitariak durangarren eskoletan parte hartuko dute, eta bereziki beraientzat prestatutako ekintzetan, antolatzaileek adierazi dutenez. Esate baterako, gaztelania eskoletan, tailerretan –sukaldaritza eta txotxongi-loena, adibidez– eta irteeretan. Dozena bat egunerako etorri dira Durango eta durangarrak ezagutzera.

> MARKEL ONAINDIA

Durangoko merkatu plazan ez da birsalmenta desagertu. 2012ko urrian udalbatzak onartutako ordenantzak debekatu egiten du, baina baserritarrek diote udalak ez duela oraindik aplikatu. Hori dela-eta, zapatu honetako azokan postu berri bat ipiniko dute hainbaten artean. *Merkatu gardena* deitu diote. Birsalmentaren bidez saltzen diren produktuak erakutsiko dituzte bertan; informatzea eta arreta erakartzea dute helburu, adierazi dutenez. Produktuak ez dira sasoi-koak izango, eta bakoitzaren jatorria, biltegiko prezioa, ekoizleak jasotakoa edota plazako prezioa zeintzuk diren azalduko dute. “Ikusita hemen ez dela ezer gertatzen, gure kontura zerbait egitea bururatu zaigu”, azaldu dute.

Merkatuaren kudeaketarako batzorde bat sortu da, eta bertan ordezkari bi edukiko dituzte saltzaileek. Baina, ez ei da batzarrik egin: “Ordezka-

riak batzarrak eskatzen dabil-tza, baina udalak ez die jaramonik egin oraindik”. Kezka agertu dute egoeraz informatzerakoan: “Edo denon artean egiten ditugu gauzak eta has-ten gara plaza aldatzen, edo us-teltzen joango da”.

Mahai falta

Birsaltzaileez gainera, mahaien banaketa eta lekua ziren arautegiko gai esanguratsuak. Antza denez, ekoizle gehiago hasi da plazan produktuak saltzen. Hori ona dela esan dute baserritarrek. Baina, ordenantza aplikatu bari-rik, leku arazoa handiagotu da, diotenez: “Lehen zegoen egoera eskasa, orain eskasagoa da. Udalak ez badu ezer egiten, batzuek segituko dute zortzi mahai edukitzen eta beste batzuek bat ere ez”. Baserritar batzuek etxetik eroan behar izaten dituzte mahaiak.

Egoera aldatzen ez bada, zapatukoa lako ekimen gehiago egingo dutela adierazi dute.

> BERRIZ

Iturritzako argiteria aldatuko dute udan

Trenbidetik Elizondoraino, eskumaldeko argiterian egingo dituzte aldaketak

> AMAIA UGALDE

Apurka-apurka Berrizko argiteria publikoan kontsumo baxuko argiteria ipintzen dabil udala, eta Olakuetatik Elizondorako tartean ere gauza bera egingo du laster. Foru Aldunditik 80.000 euroko dirulaguntza jaso berri du Berrizko Udalak, eta horretarako gordetako 27.000 euro ere erabiliko dituzte argiteria aldatzeko.

Iturritza kaleko eskumako aldean eta Legaño auzoan ipiniko dute kontsumo baxuko argiteria

Orain arte, Olakueta inguruko argiak aldatu dituzte. Trenbide inguruan eta handik behera 140 luminaria berri jarri zituzten. Bigarren fasean, Iturritza kaleko eskumaldeko argiak eta Legaño auzokoak aldatuko dituzte. Maiatzean esleituko dituzte lanak, eta uda amaierarako aldatzea aurreikusitako dute.

Andikoako lurjauzia

Bestalde, euriteengatik Andikoan egondako lurjauziak kalte-tutako eremua ere konponduko dute laster. Egin beharreko lanetarako Aldundiak 109.000 euroko laguntza eman du larrialdietarako daukan diru ataletik. Udalak 10.000 euro-gaz osotuko du aurrekontua.

Xenofobia eta preso saharauiak mozioetan

> A.U.

Eguazteneko osoko bilkuran mozio bi onartu ditu Berrizko udalbatzak: PSE-EEk aurkeztu duen xenofobia eta arrazakeriaren kontrako mozioa eta Gdem Izik-en atxilotutako preso saharaiuen aldeko testua.

Xenofobiaren gaineko testuan, etorkinen eskubideek izandako atzerapena eta Espainiako Gobernuaren erreformak salatu dituzte. PSE-EEk eta EAJk alde bozkatu dute, eta Bildu abstenitu egin da, “PSOEek Madril PPgaz duen borroka partikularren barruan” ikusi duelako mozioa.

Preso saharaiuen aldeko testua aho batez onartu dute. Marokoko gobernuak Gdem Izikeko ekintzaileei ezarritako sententziak gaitzetsi dituzte.

ERROTARITXUENA

DURANGO

Estreinatu zure etxebizitza **AURTEN**

Bisita ezazu pisu pilotua eta sinistuko duzu

**Aukera segurua eta
arriskurik gabea**

**Merkatuko finantzaketa
baldintzarik onenetan.
Idatzizko bermea.**

SabadellGuipuzcoano



946 46 20 41

www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

> DURANGALDEA

San Eloy taldearen mozioa eztabaidatuko du udalak, gaur

Bilduk aurkeztu du mozioa; Otaduik dio “adostasunetara heltzea” duela helburu

> M. ONAINDIA / J. GUENETXEA
Iketz (Abadiño) eta San Eloy (Elorrio) enpresetako beharginek euren 210 lanposturen defentsan babesa jasotzen jarraitzen dute. Elorrioko Udalak ezohiko udalbatzarrean San Eloy taldearen inguruko mozioa eztabaidatuko du, gaur, 18:00etan. Dokumentua Bilduk aurkeztu duen arren, enpresako langileen ordezkariak sinatutakoa da. Mozioan, beharginen lanpostuen defentsan udalak “dagozkion gestioak” egiteko eskatzen dute. Ana Otadui alkateak helburua adostasunetara heltzea

dela azaldu du, eta mozioaren edukien alde dagoela. Gaineratu duenez, sindikatuekin, zuzendaritzagaz, eta administradore konkurtsalagaz elkarriketatu da egoeraren berri bertatik bertara izateko. Gainera, esan duenez, Eusko Jaurlaritzagaz ere elkartu da: “Arantxa Tapia sailburuari eskatu diot arazoa konpontzeko euren esku dagoen guztia egin dezaten”.

Iketzetik (Abadiño) San Eloyra (Elorrio) martxa antolatu zuten beharginek joan zen zapatuan, bizi duten egoraren aurrean protes-

ta egiteko. Hainbat lagunek mobilizazioarekin bat egin zuten.

EH Bildu, Abadiñon

Iketz aurrean agerraldia egin zuen martitzenean EH Bilduk. Dani Maeztu legebiltzarkideak azaldu zuenez, “salagarria da, Jaurlaritza San Eloy taldearen jabea ere badenean, beste alde batera begiratzen egotea”. Jaurlaritzaarena da San Eloy taldeko akzioen %18; beharginak gobernuko ordezkariekin batu izan dira inplikazioa eskatzeko, baina ez dute lortu.



Zapatuan beharginek antolatutako martxa.

Aurten ere jasoko dituzte saharauiak Durangon eta Elorrion

Ume saharauiek errefuxiatuen kanpamentuetatik irten eta hilabete bi igaroko dituzte hemen

> M. O.
Oporrak bakean izeneko programaren barruan, aurten ere ume saharauiak hartuko dituzte Durangoko eta Elorrioko hainbat familiak. Udan, errefuxiatuen kanpamentuetatik irten eta hilabete bi igaroko dituzte hemen. Medikuek azterketak egiteko aprobetxatuko dute, eta udan Tindufeko (Aljeria) tenperatura beroak jasan behar ez izatea eta elikadura egokia izatea ere badaude helburuen artean. Durangon Herria auzo elkarteak bul-

tzatu du egitasmoa, eta Elorrion Lajwad elkarteak. Udalen laguntza daukate, gainera. Zazpi eta hamabi urte bitarteko haurrak etorriko dira, eta horiek etxean jasotzeko gonbidapena egin dute elkarteek.

Herria elkarteak hamaikagarraren urtez sustatu du ekimena. Maiatzaren 5a baino lehen eman behar da izena, eta horretarako formularioa elkartearen tabernan bertan bete behar da. Elorrioren, ostera, apirilaren 26ra arteko epea dago izena emateko, udaletxean. Lajwadekoek esan dute ekintza xumea dela, baina ume horiei on egiteaz gainera, saharauiekiko atxikimendua ere erakusten duela: “Euren zorritzarrean bakarrik ez daudela erakusten diegu. Trukean, herrialde jator horren berri eduki dezakegu”.

Zazpi eta hamabi urte arteko haurrak etorriko dira, eta horiek etxean jasotzeko gonbidapena egin dute



lazio ekainean Durangora etorritako saharauiak, ordezkari politikoekin.

Proposamenak batzen dabil M15 mugimendua

Durangaldeko herritarren kezken berri eduki eta jarduerak antolatzeko ideiak batu gura dituzte

> AMAIA UGALDE

Herritar proposamena ekimena ipini du martxan Durangaldeko M15M asanbladak. Hurrengo jardueretan lantzeko gai-zerrenda bat prestatu dute, herri-

tarrek euren intereseko gaiak aukeratu ditzaten.

Enplegua eta ezagutzen trukea, elikadura-burujabetza, kontsumo kritikoa, desazkundera, energia-krisia, genero-in-

darkeria... Hainbat gai proposatu dituzte, herritarrek euren interesekoak zeintzuk diren esateko. Gai horiek lantzeko zelako jardura mota gurako luketeen ere esan dezakete; mahainguruak, partaidetza-tailerrak, aldarrikapen ekintzak...

Ekarpenak egiteko *m15durangaldea@gmail.com* helbidera idatzi daiteke, Facebook eta Tuentiko bideak erabili, edo *15mdurangaldea.blogspot.com* blogean iradokizunak idatzi.

Zabu-Zibu, euskaraz jolasteko guneak

Familian euskararen transmisioa lantzeko, herrietako jolasguneak dinamizatuko dituzte

> AITZIBER BASAURI

Familian euskararen transmisioa lantzeko, herriko jolasguneak dinamizatuko ditu Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Euskara Zerbi-

tzuak, Gipuzkoako Urtxintxa Eskolaren bitartez.

Hiru eta bost urte bitarteko umei eta euren gurasoei zuzenduta, ekintza ludikoak egongo dira gaur, Iurretan (Amilbu-

run, 17:00etatik 18:00etara) eta Durangon (Ezkurdin, 17:30etik 18:30era). Durangon, bihar ere jardungo dute.

Apirilaren 26an ere jarriko dute Iurretan, eta Durangoko Landako Gunean 27 eta 28an.

%61,75ek gaztelaniaz Amankomunazgoak azaldu duenez, Durangaldeko familien %61,75ek gaztelaniaz jarduten du etxean. Horri aurre egin guran abiatu dute Zabu-Zibu.

> IURRETA

> AITZIBER BASAURI

Donien-atxa altxatzeagaz batera hasiko dituzte San Marko jaiak Oromiñon, eguazten iluntzean, eta bakailao erreana bantutuko dute ondoren.

Apirilaren 26tik 28ra batu dituzte ekintza gehienak jai batzordeak. Fare West jaiak egingo dute barikuan: mozerro afaria, musika eta dantza izango dituzte. Zapatuan, umeen dantzak, herri kirolen erakustaldia, jolasak, eta ping-pong eta tortilla txapelketak egongo dira.

Omenaldia

Kristina Mardaras omenduko dute domekan; bertsoan egiteko aurreneko oholtzara igo zela 30 urte bete direnean. Bertsolari eta dantzariak ez dute hutsik egingo, ezta asto probek ere.

Jai giroz bustitako egunak izango dituzte Oromiñon

Fare West gaua egingo dute apirilaren 26an



Donien-atxa igota hasiko dituzte San Marko jaiak Oromiñon, eguaztenean.

> DURANGALDEA ASTEON**Etorkinek euskara ikasteko taldea osotzen, Durangon**

AISA etorkinentzako euskara eskoletan izena emateko epea apirilaren 19an amaituko da Durangon. Astelehenetik eguaztenera, iluntzetan izango dira eskolak, eta 60 orduko ikastaroa izango da. Informazio gehiago eskuratzeko 94 603 00 16 telefonora deitu daiteke.

Martitzenean, gatzatu tailerra egingo dute Mendiolan

Berbalagun egitasmoaren barruan, euskara praktikatu eta ardi esneagaz postreak egiten ikasiko dute datorren martitzenean. Mendiolan, Alluitz-Naturaren egoitzan izango da ikastaroa, eta hainbat zapore eta testuratako gatzatuak egingo dituzte, 18:30etik aurrera. Izena emateko 639 400 789 telefonora deitu behar da.

Amankomunazgoa izango dute hizpide Mañariko hitzaldian

Durangaldeko Amankomunazgoak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko azalpenak eskainiko dizkie herritarrei Mañariko gizarte langileak apirilaren 23an. Hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da, udaleko udabaltzar aretoan. Mañariko Udalak antolatu du berbaldia.

Ingelesa praktikatzeko aukera eskainiko dute Durangoko liburutegian

Durangoko liburutegiak ingelesa praktikatu gura duten pertsonentzako taldeak sortu gura ditu apirilaren 25etik aurrera. Astean behin izango da, eta gutxiengo maila bat duen edonork eman ahal du izena. Interesdunen artean maila ezberdinak badaude, bi talde sortuko dituzte: maila handikoak eta erdi mailakoak. Liburutegiko harreraren apuntatu daiteke edo honako telefono honetan: 94 603 00 41.

> IZURTZA**Apirilaren 27an bizileku berrien gaineko herri galdeketa egingo dute**

Bost finalisten informazio guztia erakutsi eta herritarren iritzia jasoko dute

> J.DERTEANO

Garauntzan egitekoak diren etxebizitza berrien gaineko ideia lehiaketa abiatu zuen udalak iazko azaroan, eta proposamena aurkeztu zuten 77 enpresetatik bost aukeratu dituzte azken fasearako. Bost hautagai horien artean zein aukeratu erabakitzeak, herritarren iritzia aintzat hartuko du udalak. Horrela, apirilaren

27an hautagai denen gaineko informazio guztia ikusgai egongo da frontoian, 11:00etatik 14:00etara. Ordu tarte berean, udal txetxean eskuragarri egongo diren txartelen bidez proposamen bakoitza 1etik 5erako eskalan puntuatzeko aukera izango dute bertaratzen diren izurtzarrek.

Frontoiko erakusketan bost hautagaien gaineko infografiak

ipiniko dituzte panel handietan. Panel horietan etxebizitza blokeko irudiak ipiniko dituzte askotariko informazioagaz: proposamen bakoitza zer eratan den funtzionala eta energetikoki eraginkorra azalduko dute, eta erabakitzeak zer material erabiliko den zehaztuko dute. Horrez gainera, bakoitzak zer kostu izango duen ere jakin ahal izango da.



Bost hautagailetako baten etxebizitza diseinua.

> MAÑARIA**Aurtengo auzolanak prestatzen hasiko dira****> MARKEL ONAINDIA**

Mañariko Udalak bultzatutako auzolanak ekainean egingo dituzte. Baina, horiek ondo antolatu gura dituztela esan dute, eta horregatik, datorren astean auzo batzarrak egiten hasiko dira. Honako hauek dira datak: 23an San Lorenzon, San Juanen eta Artzubin; 24an Urrungo erroten, Parke gorrian eta Andra Marin (19-21); eta 25ean Arri Tokin, udaletxean eta Andra Marin (3A-3B).

Parte hartu gura dutenek beharizanen eta erreminten inguruko galdetegi bat bete beharko dute. Maiatzaren 25ean batzar bat egingo dute guztiekin.

> ATXONDO**Arrazolan, Kiñapetako eskilara konpontzen ari dira****> J.D.**

Arrazolan, bidegorriko zubi ondotik pilotaleku ingurura igotzeko dauden harrizko eskilarak konpontzen dabilta as-

teon, eta lanok datorren aste-rako amaitzea aurreikusi dute. Iaz, jausi egin zen eskilaren al-dats horretako horma zati bat, eta auzo batzarretako auzota-

> OTXANDIO**Kirola, musika eta bazkaria Udaberri Jaia ospatzeko****> J.D.**

Zapatuan, Udaberri Jaia ospatuko dute Otxandion. Goizetik eguerdira, kirol jarduerak eta umeentzako jolasak prestatu dituzte udaletxe aurreko plazan. Kirolean, saskibaloia, futbola

eta pilota izango dira protagonista. Saskibaloian Otxandioko taldeko nesken eta euren gurasoen arteko partidua antolatu gura dute; futboleak, berriz, Vulcano taldean jokatu duten jokalarien eta gaur egun dabil-

lrek gobernu taldeari azaldu-tako eskaeretakoa bat hura konpontzea eta eraberritzea izan da. Horma berriztu dute, eta egunotan, hormaren eta eskilaren artean egurrezko hesi bat ipintzen dabilta, babeserako neurri moduan. Horrekin batera, apurtuta zeuden eskilarak konpondu eta garbitu dituzte.

tzanen arteko partidua prestatu gura dute. Pilotan, 'putxe' jokamoldean jokatu ahalko da.

Umeentzako jolasak egin ondoren, bazkari herrikoian batuko dira. 19:00etan, triki-kantudantza poteoa egingo dute tabernetan zehar Soinubil kultur elkarteak prestatutako abestiekin. Azkenik, 23:00etan, Sermond's, Indarrap eta Luhartz taldeen kontzertuak daude.

> GARAI**I. Landare eta Lorezaintza Azoka egingo dute etzi****> M. O.**

Domeka honetarako Landare eta Lorezaintza Azokaren lehenengo edizioa antolatu dute udalak, Trumoitte kultur elkarteak eta Urkiola Landa Garapenerako Alkartek. Goizeko 10:00etatik 14:00etara, hogeita inguru ipiniko dituzte San Migel elizatik kanposanturantz doan bidean. Landareez gainera, lorezaintzarako tresneria ere erakusgai egongo dela azaldu du Gontzal Sarrigoitia alkateak.

Elikagaietarako leku bat gordeko dute, eta Trumoittekoek txosna ere ipiniko dute.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGUROAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77
e-maila: jrueda@segurosbilbao.com

clínicadental hartzklinika

b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, beheka - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51

► Berbaz

Patxi Gimeno | 1981, Gasteiz | Euskaltel-Euskadiko sukaldaria

“Kirolariek jaten dutena kontrolatuko duen sukaldariaren figura oinarritzko bihurtu da”

Patxi Gimeno kirol elikadurari buruzko bigarren saioa eskainiko dugaur, 19:00etan, Durangoko Elkartegian; Gimeno hiru urte daramatza Euskaltel-Euskadiko sukaldari lanetan. Beragaz batera, nutrizioan aditua den Ainhoa Lizarduyk ere parte hartuko du

►JOSEBA DERTEANO

Zelan sortu zitzazun Euskaltel-Euskadiko sukaldaria izateko aukera?

Igor Gonzalez Galdeano sukaldari baten bila zebilen. Elkarriketa bat egin zidan, elkarrekin ondo konpondu ginen, eta hartu egin ninduten. Urte hartako Frantziako Tourrean ‘debutatu’ nuen. Aurtengoa hirugarren urtea dut. Lan gogorra da, baina oso pozik nago.

Sasoi batean, talde handiek bakarrik zituzten sukaldariak. Orain, elikadura gehiago aintzat hartzen da?

Orain, askoz garrantzi handiagoa ematen zaio. Gaur egun, ia talde denek dute sukaldaria. Itzuli handietan, denek. Badira euren lan-taldean sukaldari bi dituzten taldeak ere. Baina beste kirol batzuetan ere gauza bera gertatu da, futboleko esaterako. Kirolariek jaten dutena apur bat kontrolatuko duen sukaldariaren figura oinarritzkoa bihurtu da.

“

Egunean-egunean ikusi behar dugu zerk dakarkigun onura eta zerk ez; pertsona bakoitza desberdina da”

Izan ere, elikadurak errendimenduan eragiten du.

Elikadura beti izan da garrantzitsua, baina orain detaileak gehiago zaintzen dira; gero eta lehiakortasun handiagoa dago, errendimendu maximoa bilatzen da... Eta horretarako, elikadura ere zaindu beharra dago.

Elikadura egunero zaindu behar dela diozu.

Argi dago. Metabolismoa eta gorputza hezi egin behar dira eta, elikadurari dagokionez, jarraikortasun bat behar dute. Egunen batean gehiegikeria txikiren bat egiten dela? Ez da ezer



Durango MTB Sapubike taldeak antolatutako gaurko hitzaldia.

gertatzen, baina oso garrantzitsua da egunean-egunean elikadura orekatu bat izatea. Bestalde, denetarik jan behar da. Ez da komeni janari mota batzuk ohiko bihurtzea, koipe askoko jakiak, esaterako; baina horrek ez du esan gura erabat baztertu behar direnik ere.

Edozein motatako lasterketen bezperatan karbohidratoak ei dira elikagairik aproposenak.

Elikadura orokor eta orekatu batean dago gako nire ustez, baina egia da lasterketen bezperak bereziak izaten direla, zelanbait esanda, gorputza egun horretan erabiliko duzun energiagaz kargatu behar delako. Azken batean, proteinekin eragin estrukturala dute, giharrek sendotzeko, esaterako. Koipea energia bihurtzea konplikatuagoa da. Beraz, gorputzeko batera kargatzeko karbohidratoak dira aproposenak.

“

Txirrindulari talde ia denek dute sukaldaria gaur egun; badira euren taldean bi sukaldari dituztenak ere”

Euskaltel-Euskadin, elikadura orokor baten barruan, txirrindulari zehatzentzako dieta bereziak ere badaude?

Bakoitzak badaki zer jan behar duen. Nik ez diot inori zuzenean esaten “jan hau edo bestea”. Euren badakite, eta gure ardura da behar duten hori jateko aukera eskaintzea. Esfortzuan gatz as-

ko galtzen duenak badaki gatz hartu behar duela; arraina gustuko ez duenak Omega 3ko gehigarri bat hartuko du... Euren erantzukizuna da, gure laguntzagaz. Baina esan behar dut, denak direla arduratsuenak. Noiz edo noiz arduratsuegiak ere bai.

Hidratazioa egokiak zer nolako garrantzia du?

Hidratazioa oinarritzkoa da. Oro har, gabezia egoerak eragotzi behar dira, bai janariari bai edariari dagokienez. Lasterketa batean, egarri ez izanagatik, edan beharra dago. Gosea eta antsia ere bereiztu behar dira.

Zerk egiten digun onura eta zerk ez jakiteko, gauzak probatu egin behar dira.

Ez duena balio da, gauzak irakurri eta lasterketaren bezperan probatzea. Egunean-egunean ikusi behar dugu zerk dakarkigun onura eta zerk ez.

Pertsona bakoitza desberdina da, gura gorputzek era batean edo bestean erantzuten dute. Oinarri bategaz, ondo dago probatzea.

Euskadiko kultura gastronomikoak zelan eragiten du?

Elikadura egokia dugu, baina oso haragizaleak gara. Barazkiak ere sarritan erabiltzen ditugu, hala ere. Egia esanda, euskaldunon elikadura kultura kirola egokitzea ez da batere problematikoa.

Lasterketa batean, zer jan daiteke, ohiko barra energetikoez gainera?

Elikagaiak azukre askokoak eta murtxikatzeko errazak izan behar dira. Pikuak, pasak, datilak... Zaporea aldatzeko, beti berdina izan ez dadin, *Philadelphia* gaztagaz eta urdaiazpiko egoziagaz egindako *sandwich* triangelu bat jan daiteke.



Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeke: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako afaria eta alojamendua zozketatuko ditugu
Zelan deitzen da aste honetan Anboton elkarriketatu dugun Euskaltel-Euskadiko sukaldaria?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
 Aurreko zozketako irabazlea: JASONE TROJAOLA. Zorionak!

**SEI HANKAKO MAHAIA****GOIZTIDI DIAZ**

EAJ

**Guzurrak buztana labur**

Aurreko egunean, kalean nindoa-la, aspaldiko lagun batek egin nebana topo. Betiko lagun horietakoa da, umoretsua, langilea eta adiskide jatorra. Hilabeteak emon doguz alkar ikusi barik, bakoitzaren bizimoduak dituen gorabeheren ondorioz, baina adiskidetasunaren lotura ondo baino hobeto gordetzen daben horietakoa da nire laguna. Berbaldian barrena, une batean galdera bat egin eustan: azkenean zer gertatu ete da gure udaleko diruek? Ezker Atertzalearen esanetan, iaz zorretan gongozan, eta, Bilduk aurten esan dabaren arabera, dirutza ederra daukagu, sobera, burtsan inbertitu dozue ala zer? Barre ederrak egin eta gero, erantzun mordoa bururatu jatan: “eurei galdetu”, “ez ezazu sinistu irakurten dozun oro”, etab. Baina nire lagunak ondo ezagutzen nau, eta banekien nik ez zala hain erraz konforme geratuko. Erantzun egokia askoz be sakonagoa eta zabala goa izan behar.

Bilduk printzipio kuriosoak ditu bere jardunbide politikoan. Lehenengoz, oposizioan egonda, edozer aldarrikatzeko prest dago: egun batean baieztapen bat bota eta hurrengoan (edo hurrengo hilabetean, edo hurrengo urtean) kontrakoa esateko gai da. Inolako errutasun konplexurik gabe, betiere, euren interes demagogikoei mesede egitea bada helburua, noski. Bigarren, gobernuan egonda, oposiziotik botatako guztiak atzera egiteko eta euren berbea jateko gai dira, oraingo honetan be, konplexurik gabe. Eta printzipio guztien gainetik badago letra larriz idatzi beharreko irizpidea: errealitatea gustukoa ez bada, barria asmatu eta kitto. Edo, bestela, gaine-rakoei errua bota eta listo (oraindik fresko dagoz gure herrietako horma batzuetan “PNV lotu zure txakur-rak” pintadak).

Egia esan, adiskide estimatua, hausnarketa gogotsua egin ostean, erantzuna nahiko erraza dala esan behar deusut: guzurra beti guzur, eta guzuraren buztana oso laburra da. Besarkada haundi bat!

Elorrioren enpresak ixten diren bitartean, EAJk zirku ikuskizun bat sortu nahi du

San Antongo auzokideen postontzietara Elorrioko Udalak eta Sprilurrek sinatutako idatzia heldu zen; bertan, inposatu nahi duten industriaguneari buruz dugun iritzia adierazteko auzoan karpa bat jarriko zutela adierazten zuten. Momentu honetan, Pulla-Azkarreta industriagunean gerezioz ala izeirik, teilatu berde ala metalikorik nahi dugun galdetzea burla egitea dela iruditzen zaigu! Adarjotze honen aurrean, beti defendatu dugun iritzi berbera adierazi nahi dugu.

Nekazaritzarako balio handia duten lur horien suntsipenaren aurka gaude, horren atzean 2002an lur hauen berkalifikazioa egin ahal izateko Sprilurrek eginiko inbertsio handia justifikatzeko asmoa baitago. 2007ko otsailaren 28an adierazi zuen lez, PNV-EAJ bera ere, iritzi berdinekoa zen.

“Batasunaren legealdian (nahiz eta orain beraiek izan industriagune honen etsaierik handienak) San Antongo lurren salmentak prozesu guztia baldintzatzen du. Akordio horidela-eta, beste kokapen batezinezkoa denez, PNV-EAJk zenbait bilera egin ditu Sprilurrekin.


Elorrio hilotz industrialez eta kutsatutako lurrez beteta dago. Industria lurzoru horien berreraketak eta ustiapenak lehentasuna izan beharko lukete. Gaur egun, adrei-

luaren politikak eragindako krisi gordinen, ba ote dago pabiloi gehiago egiteagatik lan gehiago izango dela sines-ten duenik? Hau egin beharrean, zergatik ez dira ahalegin-tzen, San Eloy bezala, arazoak dituzten enpresei laguntzen?

Badakigu garestia dela deskontaminatzea eta berrerai-kitzea, baina askoz larriagoa da erantzukizun hori saihe-tea eta herentzia toxiko hori etorkizuneko belaunaldientza-ko uztea. Gainera, jakinda HAPNa errekurrituta eta epai-learn erabakiaren zain dagoela, badakizue gerora zein garestia izango den Elorrio eta elorriotarrentzat pabiloi ho-riek eraikitzea, eta agian, bihar edo etzi bota behar izatea?

Horregatik diogu ez A, ezta B aukera ere. Ingurumen eta elorriotarren bizi-kalitatearen ikuspuntutik zentzunaz jo-katzea baino ez dago, eta horretarako, zuzen eta egokien baztertuta edota hutsik dauden pabiloiak eta industria lur-zoruak (16 ha; Forjak, San Agustin, etab.) berreskuratzea baino ez dago.

San Anton Bizirik plataforma



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du


anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko apirilaren 19a
11. urtea - 497. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.**Publizitatea:** Goretti Alonso,

Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

eta Amaia Ugalde.

Maketazioa:

Ainhua Arizmendiarieta.

Zuzentzaileak: Goiatz Etxeita.

Argazkilaria: Kepa Aginako,

Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> PINTURA

“Jende askok eduki gura izaten du bere baserriaren marrazkia”

Baserrien marrazkien erakusketa ipini du Enrique Larramendik (Elorrio, 1951) Elgetako kafe antzokian



> ITSASO ESTEBAN

Zer ibilbide egin duzu margo-gintzan?

Umetatik eduki dut afizioa. Gure ume sasoian koadernoak eta arkatza izaten ziren jolasak. Bederatzi-hamar urterekin, birritan irabazi nuen eskolako marrazketa saria. Gero, lanean ere baliatu

izan dut marrazketa lineala: planoak egiteko, perspektibak ateratzeko, oso esku ona eduki dut beti. Oso gogoko dut marraztea.

Bizitza guztia eman duzu, beraz, margotzen?

Bai, baina azkenaldian gehiago margotzen dut. Ezkondu nin-

tzenean, egun batean emazteak esan zidan: Bilbora joan behar dugu koadro batzuk erostera. Hainbeste diru ordaindu beharrean, “neuk egingo dizkizut koadrook!” esan nion. Eta olio-pinturagaz hasi nintzen: 50 koadro inguru egin nituen ezkonberri sasoi hartan.

Non daukazu hainbeste urtean egindako koadro guztiak?

Nire etxean, asko. Momentu batean, baina, horma guztiak bete genituen, eta familia eta lagunen etxeetan ere beste horrenbeste koadro dauzkagu orain.

Argazkietatik abiatuta egiten dituzu koadroak, ezta?

Bai, argazkia egiten diot etxeari, eta proportzioak mantenduta nahi dudaneurritara eroaten dut. Plumillagaz eta errotuladore oso finagaz ibiltzen naiz.

“

Argazkia egiten diot marraztu gura dudaneurritara, eta proportzioak mantenduta, nahi dudaneurritara eroaten dut”

Elgetako erakusketa honen aurretik besteren bat egiteko aukerarik eduki duzu?

Bai, hainbat lekutan ipini izan dut erakusketa: Elorrioko Argiñeta auzoko jaietan ipini nuen lehenengoa. Bertakoa naiz. Jendeak dezente estimatu zituen lehenengo hartan nire koadroak, eta horrek animatu egin ninduen. Gero, Elorrioko Errekakaleko jaietan ere ipini nuen aste-betez erakusketa, eta Gazetako jaietan eta Abadiñoko San Blasetan ere bai.

“

Umetatik eduki dut marrazteko afizioa: gure ume sasoian koadernoak eta arkatza izaten ziren jolasak”

Non ipini zenuen San Blasetan erakusketa?

Koadroak azokako erakusmahai horietako batean ipintzea zen lagun baten eta nire asmoa, baina ez genuen baimenik lortu. Amererik eman ez, eta erakusketa elizpean ipintzea bururatu zitzaigun. Jende asko hurreratu zen lana ikustera, galdetzeraz, interesa agertzeraz: oso polita izan zen.

Enkarguak egiten dituzu, ezta?

Bai. Jende askok eduki gura izaten du bere etxearen edo familiko baserriaren marrazkia.

Zenbat denbora ematen duzu lan bakoitzagaz?

Lan batzuk egun batean egiten ditut, baina badaude beste batzuk bi egunetan ere ez ditudanak amaitzen... Badaude lan batzuk askoz zehatzagoak direnak, eta dedikazio askoz handiagoa eskatzen dutenak.



Koadernoak, arkatza eta errotuladorea lanabes

Proportzioak zehatz-mehatz mantenduta egiten ditu Enrique Larramendik etxean eta baserrien marrazkiak: 13x11 neurriko argazkia koadroaren tamainara egokitzen du. Koadernoak, arkatza, errotuladorea, kartaboia eta erregelak dira bere lanabesak. Ondoren, enkargua egin duenaren gus-

tuaren arabera erabakitzen du kolorea eman edo ez.

Elgetako kafe antzokiko erakusketan, zuri-beltzekoak eta koloreko koadroak daude; Abadiño, Elgeta eta Elorrioko baserrien marrazkiak. Hain zuzen, bere herriko -Elorrioko- baserri guztiak margotzea da Larramendiren asmoa.



> **MUSIKA**> **ITSASO ESTEBAN**

Fermin Muguruza musikara hurreratu zela hiru hamarkada bete direla ospatzeko antolatutako kontzertuen bira da *No Name Tour*. Durangoko Platerue-
nean geldialdia egingo du gaur, 21:30ean hasita. Fermin Muguruza eta bera laguntzen duen Kontrakantxa taldea, eta Zuloak ariko dira gaur gaueko Platerue-
neko hitzorduan.

Martxoan, Kurdistanen erakutsi zuten Muguruza eta Kontrakantxa taldearen ikuskizun berri hau

Kortatu edo Negu Gorriak taldeekin zein 1999tik bakarka egindako ibilbidearen erakusle izango da Durangoko Platerue-
neko gaurko kontzertua ere.

Martxoan, Kurdistango musika jaialdi batean erakutsi zuen Fermin Muguruzak Kontrakantxa taldeagaz elkarlanean sortu duen ikuskizun berria. Ondarroako kafe antzokian abiatu zuten apirileko programazioa, eta Ramallahn jo eta astebetera datoz, Durangaldera.

‘No name tour’ birak geldialdia egingo du, gaur, Plateruenean

Kontrakantxa taldeak lagunduta jardungo du, Fermin Muguruzak, gaurkoan



Nazioarteko ekimena da *No name tour*, Fermin Muguruzak azken urteetan musikaren bitartez munduan zehar egin duen ibilbidearen isla. Mundu osoan eskainiko dituzte kontzertuak datozen lau hilabeteetan: abuztuan, esaterako, Sydney eta

Nazioarteko ekimena da ‘No name tour’: Muguruzak musikaren bitartez egin duen ibilbidearen isla

Londresen izango dira, eta ekainean, Ipar Ameriketan zein Europako hainbat hiriburutan.

Irungo musikariak zuzenduriko *Zuloak* fikziozko dokumentalerako sortutako izen bereko taldeak zabalduko du Platerue-
neko gaurko emanaldia.

GEURE DURANGALDEA

J.M. URRUTIA,
‘TXOTXE’
Irakaslea

**Hamabost urte**

Hemendik gutxira, hilabete batzuk besterik ez, Karrika Antzerki Taldeak 15 urte bete-
ko ditu. Hiru erakunde hauen babesa jaso zuen proiektuak bere hastapenetan: Durango-
ko Institutuarena, Kurutzia-
ga Ikastolarena eta Berbarorena. Helburua garbia zen: gazteen artean euskal antzerkigintza sustatzea, eskaintza ireki eta parte-hartzaile bat bultzatuz. Martxan jarri zene-
tik, faktoria ez da geratu, eta hogeitik gora ikuskizun sortu eta plazaratu ditu. Berrehun gaztetik gora pasatu dira bertatik, aktore eta antzerki talde baten partaide izatea zer den esperimendatuta.

Une honetan, hogeitai-
dek ematen diote forma eta bizia proiektuari, eta nahiz eta kultur gintzarako une go-
xoak ez izan, han eta hemen gabilta sortutako obrak tau-
laratzen. Hilabete honetan Arrasate eta Elgoibarko oholtzak zapalduko ditugu, eta Debara eroango dugu *Lurra Astinduz* maiatzean. Beste kultur eragile batzuekin elkarlanean lortutakoak dira emanaldiok: Emakume Asanbladagaz, Gaztetxeagaz edota Memoria Historikoari loturiko taldekoekin harremanetan jarrita. Aipatzekoa da duela 75 urteko gertakizun-
ek sortu duten jakin-mina eta lorturiko gaurkotasuna.

San Agustin kultur gunea-
ren babesa eta berotasuna jasotzen dugu orain, eta duela hilabete eskas *Inungane. Sustraiak Airean* aurkeztu dugu Zilar Astean. Sekretu bat: lortu duguna, konpromisoari, talde lanari, militantziari eta antzerkiari diogun maitasunari esker lortu dugu.

Eskerrik asko urte haue-
tan guztietan ikusle izan zareten guztioi: zuek barik ez dago antzerkirik. Eta badakizue, jainkoak bedeinka dezala ikusten duena eta barkatu ikusi ez duena.

> **PINTURA**

Javier Gorosarriren koadroak Ezkurdin

Apirilaren 28ra arte egongo da erakusketa zabalik

Bertan azkenengo erakuske-
ta egin zuenetik bi urte igarota, Durangoko Ezkurdin erakusketa aretoan bere lanak ikusgai ipi-
ni ditu Berrizen bizi den Javier Gorosarri artista durangarrak. Apirilaren 28ra arte izango dira ikusgai Javier Gorosarri mar-

Margogintza figuratiboa eta grabatua lantzen ditu Gorosarrik; ibilbide luze eta oparoa du margogintzan

golariaren lanak Ezkurdiko era-
kusketa areto horretan.

Margogintza figuratiboa eta grabatua lantzen ditu Javier Gorosarrik, eta ibilbide luzea egin du gure inguruko margolari handien alboan.

Durangaldeko Artisten El-
karteak antolatutako erakuske-
ta da ahotan darabilguna, eta apirilaren 19tik 28ra egongo da ikusgai. Astelehenetik barikura 12:00etatik 14:00etara, eta zapa-
tu eta jaiegunetan 18:00etatik 20:00etara egoten da Durangoko Ezkurdiko udal erakusketa are-
toa zabalik.

> **PUBLIZITATEA**

Bizkaiko prentsako antzinako iragarkiak

Elorrioko Iturri kultur etxean dago erakusketa

Bizkaiko Aldundiko liburutegiaren hemerrotekan batutako materiala biltzen du apirilean Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai egongo den erakuske-
tak. Bizkaiko prentsako antzi-
nako iragarkien bilduma da erakusketakoa.

XIX. mende erdialdetik 1939 urtera bitarteko iragarkiak dira, Bilboko egunkari eta aldizkarietan agertutakoak

Bilboko egunkari eta aldiz-
karietan XIX. mendearen er-
dialdetik 1939 urtera bitartean argitaraturiko publizitate-ira-
garkien aukeraketa bat da.

Iraganeko bizimoduak eta orduko kontsumo-joerak eza-
gutzeko modua eskaintzen du, besteak beste, bildumak: “Iru-
di, logotipo, mezu eta testu horiek XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mendearen lehen hereneko egoera sozial eta politikoaren isla dira”.

Arratsaldez egongo da era-
kusketa zabalik, Elorrioko Itu-
rri kultur etxean.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

APIRILAK 19 21:30ean
FERMIN MUGURUZA Kontrakantxa
+ZULOAK. Kontzertua. 12-15 euro.

APIRILAK 20 21:30ean
EL DROGAS
Kontzertua. 16-20 euro.

APIRILAK 26 22:00etan
J.J. VAQUERO, NACHO GARCIA, MIGUEL IRIBAR. Bakarriketak. 12-14 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

AHATETXO ITSUSIA Glu Glu Produktzioak

APIRILAK 21 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

> BERTSOLARITZA

Berbarako lau gai berrigaz dator DF Bertsozale Eskola

Bertsolaritza eta feminismoa lotuz Uxue Alberdi bertsolariak eskainiko duen berbaldiagaz abiatuko dute, maiatzaren 9an, Platerueneko Bertsozale Eskola

> ITSASO ESTEBAN

Begirada feminista bat saioa-gaz abiatuko dute Durangoko Platerueneko DF Bertsozale Eskolaren aurtengo edizioa. Inte-

resa duenak Platerueneko barran edo *erika@plateruena.net* helbidera idatzita eman deza-ke izena, maiatzaren 9 baino lehen. Hain zuzen, maiatzaren

9an izango da aipaturiko Uxue Alberdiren lehenengo berbaldia, baina beste hiru ere jasotzen ditu 2013ko DF Bertsozale Eskolaren programazioak.

Eguenetan, 19:30ean izango dira lau hitzorduak: bertsolariaren begietatik ez ezik, gai jartzailearenetatik ere aztertuko dute bertsolaritza Platerueneko lau hitzordu horietan. Puntako hiru bertsolari eta gai jartzaile bat gonbidatu dituzte.

Julio Soto nafarrak bertsolariaren ahotik jardungo du, bigarren saioan: *Zer dago jendeak ikusten duenaren atzean?* galderari erantzungo dio.

Plateruena kafe antzokian edo *'erika@plateruena.net'* helbidean eman daiteke parte hartzeko izena

Doinuaz eta kantaeraz ariko da Jon Maia bertsolari zumaiarra, maiatzaren 23ko Platerueneko berbaldian

Doinuaz eta kantaeraz jardungo du, bestalde, maiatzaren 23an, Jon Maia bertsolari zumaiarrak, eta Unai Elizasuk eskainiko duen *Izan gai (-jartzaile)* berbaldiagaz itxiko dute aurtengo berbaldi sorta.

Begirada zabala

Bosgarren edizioa beteko du Platerueneko DF Bertsozale Eskolak aurtén. Bertsolaritzari begiratu zabala emateko programazioa eskaini izan dute lau urteotan Durangoko kafe antzokian: kantuan hamar-kadak eman dituzten esperientzia zabaleko bertsolariak, bertsolaritzari beste arte diziplina batzuetatik begiratzen dioten lagunak, gai-jartzaileak, epai-leak, txapelketaren jarraipena egiten duten kazetariak, etab. ari izan dira DF Bertsozalen eskolak ematen.

Iazko saioetan parte hartu izan duten bertsozaleek, gainera, bertso trama bat sortzeko eta ondoren euren gaiak bertsolarien ahotan entzuteko aukera ere izan dute, esaterako.

Bertsogintzaren inguruko dibulgazioa egiteko helburuz antolatu dute hiru aste barru hasiko den DF Bertsozale Eskolaren bosgarren edizioa.



Bertsozale Eskolaren iazko saioetako bat.

> LITERATURA

Iurreta eta Elorrioko liburutegiak goraipatu ditu Kultura Ministerioak

Irakurketa sustatzeko egindako lanagatik lehenengo saria eman diote Iurretako Bibliotekari

Espainiako Estatuko Kultura Ministerioak eta Udalerrien elkarteak ematen dute Maria Moliner saria, eta aurtén, Iurretako Bibliotekari eskaini diote lehenengoa. Aurretik ere beste zazpi aldiz goraipatu izan dute liburutegi horren lana, baina estreineko aldia da lehenengo saria egokitzen diotena.

Irakurketa bultzatzeko egindako lana saritu diote Iurretako Bibliotekari. Lehiaketaren balorazio batzordeak, liburu-

tegi horretan martxan ipinitako hainbat ekimen txalotu ditu: herriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta egindako bisita gidatuak, ipuin-kontalarien saioak, ipuin eta bertso lehiaketak, etab. Proiektu onenaren saria eman diote: 12.000 euro eta 180 literatur nobedadek osaturiko bilduma. "Poztasun handiagaz" hartu dute Iurretako Bibliotekako kudeatzaileek eta erabiltzaileek goraipamen hori. Iurretar guztiei eskerrak eman, eta "ildo horretan lan egiten" jarraituko dutela adierazi dute arduradunek.

Elorrioko liburutegiaren lanak ere izan du Espainiako Kultura Ministerioak antolatzen duen Maria Moliner lehiaketan saririk: 180 literatur nobedadek osaturiko bilduma jasoko du sari bezala. Arduradunek jakitera eman dutenez, hirugarren urtea da liburutegia 300 proiektu onenen artean hautatzen dutena. Liburutegia irakurle elorriar guztien topaleku izateko helburuz dihardute lanean eta hainbat ekimen martxan ipintzen.

Iurretako ikasleentzako egiten dituzten hainbat ekimen azpimarratu ditu lehiaketaren epaimahaiak

"Ildo horretan lan egiten" jarraituko dutela adierazi dute Iurretako Bibliotekako arduradunek

> ARGAZKIGINTZA

Sergio Saezen argazki bilduma dago Durangoko Museoan, apirilean

Apirilaren 28ra arte edukiko dute argazki erakusketa Durangoko Museoan

Apirilaren 5ean zabaldu zuten Sergio Saez argazkilari bilbotarraren lanak biltzen dituen erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan. Hil amaierara arte, apirilaren 28ra arte, izango dira lanak ikusgai Durangon.

Margo itxura daukate Sergio Saezek erakusketa horretako bildutako argazkiek: "Ez duzu jakingo argazki bat edota akuarela bat ikusi duzun, edota dena amets bat beste-

rik izan ez den", dio erakusketaren aurkezpen eskuorriak. Juan Cruzek idatzirikoa da eskuorri hori, eta, besteak beste,

Margolan itxura daukate Sergio Saezek erakusketa horretan bildutako argazkiek


"arte zurea da, baina amestu beharra daukazu lortu ahal izateko", dio bertan.

Morandi margolariaren koadroeireferentzia egiten dieten lanak eskegi ditu Sergio Saezek Durangoko Museoan hormetan: argiarekin, objektuekin eta koloreekin jolas ten dutenak. 2011. urtean egindako lanak dira erakusketako asko, tamaina txikikoak. Teknika mistoak erabiltza eginda-koak, bildumako hainbat obra.





500. ale hau zuri
esker bete da...



Maiatzaren 11n EGITARUA

10:30

Bizikleta festa Durangoko Andra Maritik
irtenda (Ibilbidea: Durango eta lurreta)
Argazki Rallya egun osoan zehar

12:00

Dantza saioa Andra Marin: M'Lomp, De
Norte a Sur eta Kriskitin taldeak
Oilasko errea banatuko da

13:00

Kantubira musikariek eta bertsolariek
lagunduta, Durangoko Alde Zaharrean

14:30

Bazkaria Plateruenean | Txartelak Plateruenean,
Berbaron eta Anboton salgai
(15€ nagusiak / 10€ umeak)

15:00

Umeentzako ludoteka
Oxabi taldeak bazkalostea girotuko du

17:00

Anbotoren 500. alearen inguruko ekitaldia

20:00


Luhartz

23:00

DJ Xabi Urtiaga

Zatoz gurekin ospatzera!



Aitor Martinez | 35 urte, Abadiño |

“Denak funtziona dezan lortzen badut, edonori aurre egiteko gai izango naiz”

Iaz Iparraldeko Txapelketan dena irabazita, hilaren 28an Espainiako Abiadura Txapelketa hasiko du

> JOSEBA DERTEANO

Gutxieneko aurrekontua hortxe-hortxe batuta duela, Espainiako Abiadura Txapelketara bueltatuko da Aitor Martinez bost urteren ondoren. Erronka handia du aurretik. Lasterketak irabaziz saiatuko da babesleak erakartzen.

Zelakoa izan da aurrekontua osatzeko babesleen bilaketa?

Nahiko gaitza eta gogorra izan da. Gehiegizko ezkortasuna nagusitu da alde guztietan, eta askok ez dute dirurik ipini gura, jendeak ez dezan uste garai gaitz hauetan gastatzen dabilzanik. Bizitza osoan nigaz egon diren hiru lagunek eta babeslek utzi egin behar izan nautela da honetan guztian gogorren egin zaidana. Ekonomikoki egoera konplikatuan daudelako gertatu da. Bestalde, nire betiko beste babesle batek laguntza bikoiztu dit.

Denboraldiari bermeagaz aurre egiteko adina diru batu duzu?

Gutxiengo kantitatearen %60 batu dut, gutxi gorabehera. Denboraldi osoan garaipenak lortzen eta aurrean ibiltzen saiatuko naiz, *sponsor* baten arreta deitu eta aurrekontua osatzeko. Ez erortzea edo arazo mekanikorik ez izatea itxaroten dut, kasu horretan, orain dugun aurrekontua espero baino lehenago amaituko litzatekeelako.

Orain 16 urte, Espainiako azpitxapeldun geratu zinen.

Bai. Junior mailan izan zen, 19 urte nituela. Sasoi hartan, anaia hil zitzaidan, eta lasterketetan dena emanez atera nuen barruko mina. Ondoren, abiadura txapelketarako aurrekontua osatu guran nenbilela, babesle batzuk huts egin eta zor handia pilatu nuen. Urte asko eman nituen zorrak kitatzen. Ondoren, 2007an Supermoto kategoriako elitera bueltatu nintzen, baina tibia eta peronea apurtu eta txapelketa utzi beharra izan nuen podiumetan sarritan sartzen nenbilenean. Zelanbait esanda, harriz betetako basamortuko trabesia bat izan da.

Txapelketa irabaztea da aurtengo helburua?

Bai... Batez ere, nire zirkuitu gustukoenetan dauden lau lasterketak topera lehiatu gura dut: Motorland eta Nafarroako zirkuitukoak. Euskadin zirkuiturik ez dagoenez, horietan bietan erabakitzen da Euskadiko Txapelduna. Nik estimu handia hartu diet, eta etxeko zirkuitu moduan hartzen ditut. Euskaldun asko joaten da lasterketok ikustera, eta oso babestuta sentitzen naiz.

Zelakoa izango da motorra?

Iazko bera da, Yamaha R6 bat, baina esekidura berezi batzuk ipini dizkiogu, eta horiek garrantzia da nire ardura. Lan handia izaten ari gara geometria egokiaren bila. Asmatzen dugunean, aurrean eta lasterketak irabazten ibiliko garela uste dut. Hori da hainbeste lan egiteko nire motibazioa.

Nortzuk izango dituzu arriorik gogorrenak?

Uste dut Elena Rossel mundialista izango dela areriorik gogorrena, baina 17 eta 18 urteko dozena bat gazte egongo di-

ra, bakoitza bere probintziako txapelduna, eta seguru nago lanak emango dizkidatela. Baina azkenean, nire buruaren kontra lehiatzen naiz. Denak funtzionatu dezan lortzen badut, edonori aurre egiteko gai izango naiz.

Txapelketako beteranoetakoa izango zara 35 urtegaraz. Zer abantaila ditu?

Orain, gaztetan baino askoz trankilagoa naiz, eta gauzak hobeto planifikatzen ditut. Ustebakoen aurrean azkarrago erantzuten dut, erreflexu hobeak ditut, eta ia ez dut beldurrik sentitzen. Benetan eskertuta nago gustatzen zaidan horretan lehiatzeko eta borroka egiteko aukera dudalako. Beharbada, energia hori da hau guztia posible egiten duena.

Aurten Munduko Motoziklismo Txapelketa inoiz baino emozionanteago dago.

Lorenzo konstantea da, eta gai da lasterketa osoa errekorren erritmoan egiteko. Marquezek ilusioa eragingo du, aurtendik hasita lasterketak irabazteraino, nire ustez. Pedrosa, Rossi... Denak ikusgarriak dira. Munduko Txapelketa Rossiren eta Marquezen artean jokatzeari nahi nuke; nire idoloak dira.

> PILOTA

Herri artekoan, abantaila hartu dute lurretak eta Elorriok

Bizkaiko Herri Arteko Txapelketako lehen kanporaketako joaneko partidua errentagarriak izan dira Elorrio eta Iurretarentzat. Partidu bi irabazi dituzte, eta bat galdu dute. Elorrio kadeteetan (1-22) eta seniorretan (2-22) nagusitu zitzaion Lekeitiori. Iurretak kadeteetan (4-22) eta gazteetan (13-22) irabazi zion Lezamari. Beraz, aurrera egiteko aukera handiak dituzte herri bi-biek. Bueltako partidua gaur jokatu dute; Elorrian, 19:30etik aurrera, eta Iurretan, 21:00etan hasita.

> PILOTA

San Prudentzio txapelketako finalerdiak jokatu dituzte

Abadiño San Prudentzio txapelketa unerik erabakigarrienean sartu da. Asteburuan, senior eta gazte mailako finalerdiak jokatu dituzte lau t'erdian. Gaur, 20:00etan, Ander Antxia abadiñarrak Andoni Mendinuea arabarra izango du aurkari Traña-Matienan. Nagusietako bigarren finalerdia eta gazte mailako biak domekan, 16:30ean, jokatu dituzte. Nagusietan Egoitz Amantegi abadiñarra eta Julen Altzelai neurtuko dira.

> TXIRRINDULARITZA

Abasolo eta Isasi Bizkaiko txapeldun

Borja Abasolo abadiñarrak (Debabarrena) eliteetan, eta Ziortza Isasi elorriarrak (CAF Transport Engineering) gazte mailan Bizkaiko Txapelketa irabazi zuten joan zen asteburuan. Abasolok laugarren bider jantzi zuen Bizkaiko onenaren txapela Berriatuko San Gregorio Sarian. Ihesaldi batean zihola Calvarion gora erasoar jo eta bakarrik helmugaratu zen. Isasik, oster, laugarren amaitu zuen Txorie-riko Sari Nagusia, baina bera izan zen lehen bizkaitarra.

“

Babesleen artean gehiegizko ezkortasuna nagusitu da, eta ez dute dirurik ipini gura”

> KROSA

Durangoko lehen herri krosa antolatu du Mugarra triatloi taldeak

Domekan izango da proba; arineketan eta patinetan parte hartuko dute 5 edo 10 kilometroko ibilbideetan



Mugarako kideak iazko duatloiairen helmugan. Mugarra triatloi taldea

> AMAIA UGALDE

Hainbat herritako herri krosotara joaten dira Mugarra triatloi taldeko kideak. Batean eta bestean ibili bai, baina Durangon bertan horrelako lasterketarik ez zegoela-eta, krosa antolatzea erabaki dute. Serafin Bereziartua Mugarako presidentek azaldu duenez, "Durangaldea arineketan jende asko ibiltzen da, eta guztiei egin diegu parte hartzeko deia".

Durangon barrena 5.000 metroko zirkuitua antolatu du Mugarra triatloi taldeak, eta buelta bi eginda, 10.000 metroko krosa egiteko aukera egongo da. Ibilbide luzea gainera, Espainiako atletismo federazioak homologatu du, eta patinetan egiteko aukera ere izango da: "Patinetan ibiltzen diren elkarte bateko kideek proposa-

tu digute, eta Behobian-eta egin duten moduan, gu ere animatu gara".

Eguen iluntzean amaitu da lasterketan izena emateko epea, eta krosean parte hartzeko 250

Krosean parte hartzeko 250 lagun inguruk eman dute izena, Mugarra eskolako gaztetxo guztiak tartean

Ibilbide luzea Espainiako federazioak homologatu du eta patinetan egiteko aukera egongo da

lagun inguruk eman dute izena. Tartean izango dira Mugarra eskolako gaztetxo guztiak. Izan ere, gaztetxoek ere parte hartu dezakete krosean: 12 urtetik gorakoek 5.000 metrokoan, eta 10.000 metrokoan 14 urtetik gorakoek.

Ibilbidea

Domekan, lasterketarako drosalak 09:00etatik 10:30era hartu ahal izango dira, karrera hasiera lekuan; Ezkurdiko kioskoan. Patinetan egingo den lasterketa -10.000 metrokoa- 10:30ean hasiko da, eta arineketan, berriz, 11:00etan irtengo dute, ibilbide laburrekoek eta luzekoek batera.

Behin edo birritan egin ahal izango den zirkuitua Ezkurdin hasiko da. Handik Madalenara joko dute, eta gero, Landako Etorbidera. Ezkerretara hartu

eta bidegorrira joango dira, eta handik, atletismoko pista. Landako Etorbidean beherantz egin, eta Alluitz kaletik Askatasun Etorbidera joko dute, eta handik Ezkurdira, zirkuitu hasierara bueltatuko dira.

DATUAK

- **Hasiera:** Patinetan, 10:30ean; arineketan 11:00etan. Dorsal banaketa: 09:00etatik 10:30era
- **Luzeera:** 5.000 metro edo zirkuitua birritan, 10.000 metro (homologatua)
- **Ibilbidea:** Ezkurdi, Madalena, Landako Etorbidea, bidegorria, Landako Etorbidea, Alluitz kalea, Askatasun Etorbidea, Ezkurdi.
- **Gaztetxoak:** Ibilbide laburra 12 urtetik gorakoek egin dezakete, luzea 14 urtetik gorakoek

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Momentu garrantzitsuak

Urte osoan lanean ibili ostean, badator fruituak jasotzeko momentua. Batzuetan, fruituak gozoak dira, eta beste batzuetan erdi ustelak.

Lehenengo eta behin, utzidazue hemendik Galdakaoko GDKO Ibaizabal nesken taldea zoriontzen: Estatuko liga nagusirako txartela lortu dute igoera fasean. Zorionak!

Gure taldeetan denetik daukagu: Tabirakoko mutilen taldeak, sailkapeneko erdialdean kokatuta, bukaera lasaia izango du behin jaitzierako postuak libratuta.

Neskak, ordea, hasiera txarrraren ondoren, liga ederra egiten ari dira, eta lehenengo sailkatuta eta Estatuko 2. mailara igotzeko dagoen Caja Vital Kutxa UPVri laguntzeko jakatuko den *play off*ean parte hartuko dute, hirugarren postuan sailkatuta daude-eta. *Play off* hori hauek jakatuko dute: bigarren dagoen Bera Bera UPV, hirugarren dauden gure neskek, laugarren dagoen Universidad de Deusto Loiola Indautxuk eta bosgarren dagoen Erroibide Irunek. Garai le irteten denak igoera fasea jokatzeke saria izango du.

Azkenik EBA mailan dabilen Zornotza S.B. Taldeak azkeneko partidu biak irabazi behar ditu orain daukan bigarren postua mantentzeko eta, hartara, igoera fasea jokatzeke. Horretarako, ezinbestekoa da zapatu honetan Burgosko Miguel Antonio Robleda taldeari irabaztea, Zornotzan, eta azken jardunaldian azken postuan sailkatuta dagoen Urretxuri irabaztea. Nik uste (nahia gehiago!) saria izango dugula. Zorte on denoi!

A CENTRAL
FORESTAL

Baserritarren eta Euskal
Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 94 620 51 87 - Faxe: 94 620 51 94

> TXIRRINDULARITZA

Ehun txirrindulari gazte inguru batuko ditu zapatuko lasterketak Durangon

Berriz, Garai, Iurreta eta Durangoko kaleetatik antolatutako zirkuituari hiru itzuli emango dizkiote

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan Otxandioko kaleak txirrindulari gaztez bete baziren —kadete mailako Andikona Sarian—, bihar, Durango eta bere inguruek hartuko dute erreleboa, gazte mailako Tabira Sariagaz. Euskal Herri osotik etorritako 100 txirrindulari (mutilak zein neskak) batuko dira 16:00etan, Ezkurdiko irteera puntuan. Durangoko Txirrindulari Elkartek antolatu du lasterketa.

Beste Alde Orue Eskolako eta Bizkaia-Durango taldeeta-

Adrian Sainz durangarra eta Aritz Hernandez berriztarra irabazteko faboritoen artean daude biharko lasterketan

ko hainbat txirrindularik parte hartuko dute lasterketan. Irabazteko faboritoen artean Beste Alde Orue Eskolako Adrian Sainz durangarra eta Aritz Hernandez berriztarra daude. Hernandezek laugarren amaitu zuen joan zen asteburuan Deban lehiatu zen lasterketan, eta sasoi betean dago. Ziklo krosean eta pistan ere aritzen da Hernandez. Gaur egun, bera da pistako Bizkaiko



Bizkaiko 'Pipas' sariko lehen lasterketa izango da Durangokoa; iaz Alain Ramirezek jantzi zuen maillot horia.

txapelduna gazteetan. Eskualdeko txirrindulari biek Julen Amarika mungiarra izango dute areio nagusia. Bizkaia-Durangoko seniorrek, aldiz, Flecha-Valona klasika lehiatu zuten eguazteenan, eta han parte hartu ez zuten hainbat txirrindularik parte hartuko dute Durangokoa.

Ibilbideari dagokionez, Ezkurditik abiatu ondoren, Miota igoko dute Berrizko aldetik, eta Elorriotik, Goiurira eta Garaira joango dira. Traña-Matiena eta Iurretatik (gasolindegitik sartuta) bueltan, Ermodo kaletik sartuko dira Durangon. Zirkuitu horri hiru itzuli emango dizkiote.

Lasterketak gonbidatu berezi bat izango du: Cofidis taldeko Egoitz Garcia txirrindulari profesionala. Aurten maila handian dabilen atxondarrak hasiera emango dio lasterkatari eta, ondoren, Durangoko taldeko autotan bertatik bertara jarraituko du lasterketa osoa.

> ERRUGBIA

Ilarduyak aldats gora du jaitsiera promozioko kanporaketa

Durango Ilarduya gizonen talde nagusiari aldats gora ipini zaio mailari eusteko aurreneko kanporaketa. Joan zen domekan 8-32 galdu zuen Arripausuetan, Sevillako Helvetia taldearen aurka. Joan Manuel Iriondo klubeko presidentearen esanetan “denboraldiko partidurik txarrena jokatu genuen”. Taldeari zehatzasuna falta izan zitzaion pasean, eta adorea plakajeak egiterako orduan: “Helvetia ez zitzaigun talde lar ona irudit, baina gu negargarri ibili ginen, ez zitzaigun ezer ondo irten”.

Itzuliko partidua hilaren 27an jokatu dute Sevillan, eta markagailuari buelta ematen “gogo biziz” saiatuko direla adierazi du Iriondok. Gogoratu beharra dago kanporaketa hau galduz gero, oraindik beste kanporaketa bat jokatuko luketela Nazional mailako talde baten aurka.

> ATLETISMOA

Bidezabalek ezin izan du klubun arteko txapela berritu

Bidezabalgo emakumeen taldeak ezin izan du bigarren urtez segidan klubun arteko Euskadiko Txapelketa irabazi. Joan zen asteburuan Donostian jokaturako txapelketan, Atletico San Sebastian nagusitu zitzairen, eta bigarren amaitu zuen Bidezabalek. Hala ere, hainbat probatan nagusitu zen: Eskolunbe Puente 200 metrotan, Lucia Garate 800 metrotan, Iraia Garcia 3.000 metro oztopotan, Belit Solar 3.000 metrotan, Iratxe Ormazabal mailu jaurtiketan eta Arantza Moreno xabalina jaurtiketan.

Durango Kirol Klubak zortzigarren amaitu zuen emakumeetan. Iaz sortu zuten kluba, eta parte hartzen zuen lehen aldian zen. Nahia Ibarzabalen bidez, 5.000 metroko martxa proba irabazi zuten.

> FUTBOLA

Iurretako Bk bere esku du igoera domekako derbian

Etxean Zaldia Bri irabazita, seguru igoko dira

Domekan, 11:00etan, igoera bat balio duen derbia jokatu du Iurretako Bk Zaldia Bren aurka. Irabaziz gero, Bigarren erregionalera igoko dira. Galduta ere igo daitezke, baina horretarako San Antoniok ez du irabazi behar Lipa Amorebie-

taren kontrako partidua. Talde biek puntuetan berdintzen badeute (Iurretako Bk derbia berdinez eta San Antoniok irabaziz) San Antonio igoko litzateke *average* orokorra euren aldekoa delako. Garrantzitsuena da bere esku dutela igoera.

> FUTBOLA

Futbol 7 txapelketa antolatu du C.D. Elorriok

Maiatzetik uztailera jokatu dute partidua

I. Villa de Elorrio Futbol 7 txapelketa jokatu da datorren hiletik aurrera, Elorrioko Eleizalde zelaian. C.D. Elorriok antolatuta, 9 eta 12 jokalaritako taldeek izena emateko aukera dute dagoeneko, maiatzaren 10era arte.

Partiduak maiatzaren 27tik uztailaren 4ra jokatu dira, 18:30etik 20:30era. Izena emateko cdelorrio@cdelorrio.e.telefonica.net helbidera idatzi daiteke. Taldeko 120 euro ordaindu behar da, eta partaideek 16 urtetik gora izan behar dute.

> AGENDA

> FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Abadiño - Artibai

· Zapatuan, 15:30ean,

HIRUGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Zaldia B

· Domekan, 11:00etan, Larrakozelain

Elorrio B - Amorebieta B

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Santutxu

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Abadiñoko Lagun - Eskoriatza

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian

Kurutziaga - Debabarrena

· Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxe - Aurrera Beti

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

Dantzari - Zuentzatz

· Zapatuan, 17:30ean, Lanbide Heziketa Institutuan

Sapuberri - Hegalariak

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

Elorrioko B - Ituriondo

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Bilbo B

· Zapatuan, 15:45ean, Landako kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - La Peña Basket

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Liceo Monjardin

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque - Deusto-Loiola

· Zapatuan, 16:45ean, Durangoko merkatu plazan

> PILOTA

SAN PRUDENTZIO PILOTA TXAPELKETA

Seniorrak (finalerdiak):

- Antxia - Mendinueta

Kadeteak:

- Fernandez - Eizagirre / Sanchez - Aburuza

Promesak:

- Loitegi - Otaño / Celaia - Elustondo

· Barikuan, 20:00etan, Traña-Matienako pilotalekuan

Kadeteak:

- Beloki - Zabala / Okinena - Irurita

- Peña - Mendia / Loizaga - Bengoa

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako pilotalekuan



Urkiolako soinuak aberastasun naturalaren barruan kokatu dituzte, eta horiek neurtzeko ikerketa egin dute.

Urkiolako soinuak aztertu dituzte Tecnaliako ikertzaileek

Urkiolan jasotako zarata mailak oso baxuak direla adierazi du Aldundiko Ingurumen zuzendariak, Maria Uribek; soinuak paisaje naturalaren baitakoak direla uste dute

> MARKEL ONAINDIA

Urkiolako Parke Naturaleko soinuak aztertu dituzte Tecnalia erakundeko ikertzaileek. Urkiola, batez ere, ingurune edo paisaje naturalagatik da ezaguna, eta bertako soinuei arreta handirik ez zaiela ipintzen uste dute. Baina, soinuak ere paisaje horren baitako elementuak direla uste dute Tecnaliako ikertzaileek. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskariz egin dute ikerketa. Soinu naturalak aztertu, beste soinuek bereizi, eta ondoren zaintzea da Aldundiaren helburua. Maria Uribe Ingurumen zuzendariak adierazi du soinu naturalak babesteko apustua egin duela Aldundiak: "Soinuak babestek balioa ekartzen du kulturaren, paisaiaren eta ondarearen aldetik. Gure naturaguneetako beste altxor bat dira". Animaliez eta paisajeaz gainera, soinua ere zaindu beharreko baliabidea dela uste dute.

Urkiolako 21 lekutan egin dute azterketa Tecnaliakoek. Esan dute kali-

tate handiko soinuak topatu dituztela. Haizea, txoriak, erreka... Igone Garcia izan da ikertzaileetako bat, eta lanaren asmoaz berba egin du: "Soinu-paisajeen artetik irauterazi edo lehenetsi behar direnak identifikatu nahi izan ditugu, biodibertsitatea babesteko".

Soinu-maila lasaiak

Uribek esan du, Urkiolan jasotako zarata mailak oso baxuak direla dezibeliotan, hiri batean nekez aurkitzen direla hain soinu-maila lasaiak. "Horri esker, gure horiek ahalmen handia daukate estresaren aurrean susperrarazteko, eta biodibertsitatea indartzeko". Ingurumen zuzendariaren arabera, Urkiolako aberastasun naturalaren beste alde bat azaleratu du ikerketak.

Ingurune naturaletako soinuak aztertzeko ideia AEBetatik ei dator. Hemen, ohitura badago kaleetako zarata ikertzeko, batez ere, kutsadura atmosferikoa neurtzeko. Baina, Euskal Herri-

ko eta Europako ingurune naturalei dagokienez, aitzindaria da Urkiolako lana, Europan ere azterketa gutxi egin baitira eremu horretan.

Kontzientziazioaren beharra

Garcia azaldu du aurrera begira ere badagoela lanik. "Mahaigainean dugun azterketa hori oinarri izanik, aztertu egin beharko da zer soinu-iturri ez datozen bat paisaiarekin, eta puntu horietan hobetzeko zein aukera dagoen". Gainera, herritarrek kontzientziazteko dinamikak martxan ipintzea ere beharrezko ikusi du, "gure soinu ohiturak eta mendiaren erabilera naturalarekin bateragarri egiteko".

Uribek, Urkiolan egindakoa lako azterketak Bizkaiko beste natur inguruneetara ere hedatuko dituztela aurreratu du: "Garrantzitsua da soinu-paisaiaren kudeaketa hori jada errealitatea dela, eta paisaia hori babesteko urratsak egiten ari garela".

Uriberen arabera, Urkiolako aberastasun naturalaren beste alde bat azaleratu du ikerketak

Euskal Herriko eta Europako ingurune naturalei dagokienez, aitzindaria da Urkiolako lana

Garcia: "Soinu-paisajeen artetik irauterazi edo lehenetsi behar direnak identifikatu nahi ditugu"

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1.º - 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behe - 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Ask. etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekotxe ebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hasiera goaz. 2 logela eta logela bakarrekotxe. Trastelekuarekin. 140.000€ -tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatze. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatze. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerileku eta frontoia.

ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitze aukerarekin.

ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitze. 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitze. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK SALGAI

IZURTZA

- Baserrira salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailekin. Durangotik 5 minutura.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak eraikitzen.

- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANTISO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatze. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoi. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/ trasteleku eta sotoa.
- KOMENTUKALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoi. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoi. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoi. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- IBAIZABAL: Halla, sukaldea, egongela, logela eta komuna. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoi. Ganbara eta garajea.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- ABADIÑO-SAN TROKAZ: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta komuna. Lorategia. Trastelekua eta garajea.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoi. Garajea eta ganbara. Berria. Egoera onean.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoi. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ELORRIO: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoi. Trastelekua eta garajea.
- ELORRIO: Berreraikitze etxea, lursailduna.
- IURRETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Jantzia eta berrikuntza askorekin.
- IURRETA: Halla, egongela, jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoi. Ganbara.
- IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trastelekua. Oso egoera onean dagoen etxea. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubia. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- SALGAI: BASERRIA LUR EREMUAREKIN MENDATAN ETA BERRIZEN.
- SALGAI: TXALET ADOSATUA LUR EREMUAREKIN MAÑARIAN.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA



- Eraikuntza berriko pisuak. 1, 2 eta 3 logela. Garajea eta ganbara. 185.000€ -tik aurrera

ZABALE



- Etxebizitza zabal eta ikusgarria salgai. 99 m2. 4 logela, 2 bainugela. Garajea eta ganbara aukeran.

SAN MARTIN ATARIA



- AUKERA. Igogailua. 2 balkoi. Kanpora ematen du, eguzkitsua eta bista ederrekin. 3 logela. 200.000€

ASKATASUN ETORBIDEA



- Aukera. Igogailua. Ganbara. 3 logela. 83 m2. 169.000€ (negoziagarria).

SAN FAUSTO



- Aukera. 99.500€. 3 logela. Kanpora ematen du. Ikuspegi ezinhobeak eta nahi beste eguzki!

Aipatutako etxebizitzet gain, Durangalde osoan etxebizitzaren aukera zabala dugu, 50.000euro-tik aurrera.
www.inmoduranguesado.com

EYXEBIZITZA BERRIAK ESTREINATZEKO

- ZALDIBAR: Kurutzezar plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 104.000€ 2 logela eta 2 komun. 138.000€ 3 logela eta 2 komun. 178.000€
- IURRETA: estreinatze. 1,2 eta 4 logela. 2 eta 3 komun. Ganbara. Trastelekua. Garajea aukeran. 180.000 €
- ATIKOA: berria. Estreinatze. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Trastelekua eta garajea aukeran. 212.000. BEZ barne.
- BARRENKALEA: berria. Duplexa. 2 logela eta 2 komun. Estreinatze. 220.000 €

ALOKAIKUAN EROSTEKO AUKERAREKINI

- MAÑARIA: Erref. 495. 3 logela. Igogailua. Ikuspegiak. 500 €
- MATIENA: Erref. 491. 3 logela eta komuna. Ikuspegiak. 500 €
- ABADIÑO: Zelaieta. Erref. 483. Estreinatze. 2 eta 3 logelakoak. Sukalde berria eta 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua. 600 €

AUKERA

- BERRIZ: Iturritza. 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Despentsa. Berogailua eta igogailua. Ganbara eta garajea. 211.200 €
- MURUETATORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. 190.000 €
- ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela handia. Igogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. 116.000 €
- LANDAKO: 3 logela, 2 komun, egongela terraza handiarekin eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. 216.200 €
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Igogailua. 150.000 €
- ZEHARKALEA: 3 logela eta komuna. Igogailua. 138.000 €
- DURANGO: 4 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. 99.000 €

ETXEBIZITZAK SALGAI

- GALLANDA: apartamentua. Trastelekua eta garajea. 186.000 €
- F.J. ZUMARRAGA: 2 logela eta 2 komun. Terraza. 186.000 €
- ASTEPE: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 215.000 €
- MURUETA TORRE: 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. 264.000 €
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. Igerileku. Eguzkitsua. 240.000 €
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta egongela. Terraza. Berriztatua. 211.000 €
- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 278.000 €
- ASKATASUN ETORBIDEA: erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. 276.000 €
- FRANTZISKO IBARRA: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- ZUMARPARKEA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: garaje itxia. 21.000 €

LOKALAK ALOKAIKUAN

- J.A. AGIRRE: 125 m2. Alokairuan edo salgai. Negozioa martxan. 900 €
- ARTEKALEA: 80 m2. Alokairuan.
- EZKURDI: Bulegoak. 65 m2. 650 €. Alokairuan.
- ERMODO: 65 m2. Egokitua. Alokairuan.
- PLATERUEN PLAZA: 130 m2. Egokitua. Alokairuan.

AGENDA

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Apirilaren 20an, 21:30etan
Durangoko Plateruenean

El Drogas

Enrique Villareal nafarraren eta bere taldearen kontzertua izango da entzungai bihar, Durangoko Plateruena kafe antzokian. Barricada, Txarrena eta La Venganza de la Abuela taldeekin sorturiko kantak eskainiko ditu, esaterako, Villarealek.



Antzerkia

:: BERRIZ

Apirilaren 20an, 20:00etan
La Chana Teatro taldearen
¡Gaudeamus! El Licencia-
do Vidriera, Kultur Etxean.

Apirilaren 26an, 18:00etan
La Companyia del Princep
Totilau taldearen
Ekaitza, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Apirilaren 21ean, 18:00etan
Glu Glu Produkcioak-en **Aha-**
texxo itsusia San Agustinen.

:: ELORRIO

Apirilaren 26an, 22:00etan
La Papa Produccio-
nes taldearen **Las mari-**
posas del estómago no
han muerto, Arriolan.

:: IURRETA

Apirilaren 19an, 18:00etan
Gorakada taldearen
Printzea eta ahatea,
Ibarretxe kultur etxean.

Apirilaren 24an, 19:00etan
Zugan Ni jaialdia, Iba-
rretxe kultur etxean.

:: ZORNOTZA

Apirilaren 19an, 21:00etan
Lingua Nabajorum,
Zornotza Aretoan.



Erakusketa

:: BERRIZ

Apirilaren 27ra arte,
Javier Ferdoren 'Benetako
berbak', Kultur Etxean.

Apirilaren 25era arte,
Garikoitz Arregi 'Say'-ren
grafitiak, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Apirilaren 28ra arte,
Sergio Saezen argazkiak,
Arte eta Historia Museoa.

Apirilaren 28ra arte,
Javier Gorosarriren lana,
Ezkurdi aretoan.

:: ELORRIO

Apirilaren 29ra arte,
Antzinako iragarkiak
Bizkaiko prentsan, Iturrin.



Musika

:: DURANGO

Apirilaren 19an, 21:30etan
Fermin Muguruza
Kontrakantxa + Zuloak,
Plateruenean.

Apirilaren 20an, 21:30etan
El Drogas, Plateruenean.



Jaiak

:: IURRETA (Oromiño)

Apirilaren 24an, iluntzean
Donien Atxa jasotzea,
ondoren, bakailao erre
dastaketa.

Apirilaren 25ean, 11:30etan
Meza, ondoren, **herri**
bazkaria. **17:00etan**
Briska txapelketa. Iluntzean,
Igel txapelketa.

Apirilaren 26an, gauean
Far West Festa, mozorro
afaria, musika eta dantza.



Lehiaketa

:: BERRIZ

Apirilaren 27an, 09:00etan
Kaleko pintura lehia-
keta. Oinarriak: udala-
ren webgunean.



Berbaldia

:: DURANGO

Apirilaren 26an, 22:00etan
J.J Vaquero, Nacho Garcia eta
Miguel Iribar, Plateruenean.

Apirilaren 23an, 19:00etan
Josune Muñoz, *Cincuenta*
sombras de Grey y otros
fenómenos extraliterarios.
udal liburutegian.



Ipuin kontalaria

:: ZORNOTZA

Apirilaren 19an, 18:00etan
Miriam Mendoza, Herri
Bibliotekan.



Bertsoak

:: MALLABIA

Apirilaren 21ean, 17:30etan
Bertso saioa, pilotalekuan.

APIRILEKO AGENDA



19,26

KULTURA ETA EUSKERA SAILA

19an, 17:00 Jolasgunea Amilburun.
18:00 Antzerkia: "Printzea eta ahatea"
26an, 17:00 Jolasgunea Amilburun.

20,21,27,28

IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA

09:00 Hainbat ibilbide (75-104 km).

20,27

IURRETAKO KIROL TALDEA

17:00etan
20an lurretako-Sondika; 27an Retuerto-lurretako

21,28

EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E

21ean, 11:00 40 km mutil kadeteekin, Amorebietan
28an, 10:00 Emakumeen Kriteriuma, Tafallan

22,23

24,26

HERRI BIBLIOTEKA

22an, 18:15 Emakumeen literatu tailerrak
23an, Haurren irakurketa kluba:
17:00 (8-9 urte), 18:00 (9-10 urte)
18:30 Helduen irakurleen txokoa (gazt.)
24an, 19:00 Helduen irakurleen txokoa (eus.)
26an, Ipuin kontalaria: Lur Korta
17:30 3-4 urte. 18:00 5 urtetik gorakoak
20:00 Helduentzako ipuin kontalaria

24

ZUGAN NI JAIALDIA

19:00 Antzerki amateur, lurretako taldea eta
talde gonbidatuarekin

24,25,26

27,28

OROMIÑON SAN MARKO JAIK

24an, Donien Atxa eta makailaua partehartzaileei
25ean, Mesa, bazkari herritarra, briska eta igela
26an, Fare West Festa, mozorro afaria, musika
27an, Umeen dantza eta herri-kirolen erakustaldia,
jolasak, pin-pon, tortila txapelketa, Luhartz,
txokolatada eta sorpresa
28an, Mesa, Mikel Deuna, Kristina Mardaras
omenaldia, trikitilariak, probak eta zozketa

Apirilaren 19an, lurretako kultur etxean

PRINTZEA ETA AHATEA

Gorakada taldearen emanaldia izango dute gaur, lurretako Ibarretxe kultur etxean. Adiskidetasunari buruzko obra da 'Printzea eta ahatea'.



:: ELORRIO

Siete psicópatas

Zuzendaria: M. McDonagh
• zapatua 20: 22:30
• domeka 21: 20:00
• astelehena 22: 20:00

:: ZORNOTZA

Grandes esperanzas

Zuzendaria: Mike Newell
• zapatua 20: 22:30
• domeka 21: 20:00
• astelehena 22: 20:00

UMEEN ZINEMA

Abuelos al poder

Zuzendaria: Andy Fickman
• domeka 21: 17:00

ZINEFORUMA

La cocinera del presidente

Zuzendaria: C. Vincent
• eguena 25: 20:00

> ZORION AGURRAK
 zorionak@anboto.org
 eguazteneko 14:00ak arteko epea


> **Nora Arana Alzola**, domekan, apirilak 14, 8 urte bete zituen. Zorionak! Musu potolo-potolo bat etxekoan partez!



> Gure Mundakako printzesak 3 urtetxo beteko dauz. Zorionak eta musu potolo bat Araia, Xabier, Jare, Amets ta amamaren partez!



> Gure etxeko mutil ederrak urteak bete zituen hilaren 12an. Jarraitu horrela eta tori txokolatezko musu bat etxekoan partez!



> Zorionak **Ana**! Mosu piloa ta belarri tirakada familia eta kuadrillan partez! Jarraitu zaren modukoa izaten! Mosuak Inñigon partez!



> Apirilaren 20an eta 29an **Amaiur**ren eta **Uxue**ren urtebetetzeak izango dira. Zorionak eta musu handi bat familia osoaren partez!



> Aupa **Ruben**! Barçak edo Madrilek irabaziko al du? Joan zaitez baloi efektuak entrenatzen Messi! Zorionak eta musu bat danon partez!



> Hemen daukagun neska polit hau **Itzal** da. 23an jaio zan udabariagaz batera. Bisitan etorri eta alaitu gaitu! Mosu pilo bat, preziosa!



> Zorionak **Beñat**! Gaur, apirilaren 19an 13 urte bete ditu. Musu asko eta besarkada bat etxekoan partez!



> Zorionak **Maria Jesus**! Apirilaren 11n. 53 urte bete zituen. Zorionak etxeko guztien partez eta musu handi-handi bat!



> **Alik** martitzenean, apirilak 16, 25 bete zituen. Kuadrillakoen partez, zorionak ta urte askotarako! Asteburuan zelebraukogu... Mosu bat!



> **Ainhoa** dantzariak urteak bete ditu asteen, zorionak eta musu handi bat zure lehengusu-lehengusinen partez, ondo pasa!



> Urteak aurrera doiaz... 20 urtetxo bete ziñuzen eguaztenean, udaberriko egun ezin hobean! Mosu piloa! Asteburuan ospatuko dogu!



> **Joseba Murgoitio**beñak 45 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak eta musu asko danon partez. Errioxan gonbidatuko gaituzu!



> Zorionak **Jon**! Bihar 21 urte beteko ditu. Ondo pasau zure egunean. Mosu handi bat Jauritxikitik, eta batez ere, zure bi lehengusinen partez.



> Zorionak! Gure etxeko txikitxoari familiaren partez eta musu bat Marianen partez. Jarraituko horrelako jatorra izaten.



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 88 69
 Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Zorionak Miren eta Amaiur!
 Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 19
 09:00-09:00
 • **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
 09:00-22:00
 • **EGUREN, ISABEL**
 (TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO)
ZAPATUA, 20
 09:00-09:00
 • **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
 09:00-13:30
 • **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
 • **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)
 • **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
 • **BALENCIAGA**
 (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
 • **UNAMUNZAGA**
 (MURUETATORRE 2C - DURANGO)
 • **SAGASTIZABAL**
 (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
 • **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)
 • **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)
 • **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)
 • **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)
DOMEKA, 21
 09:00-09:00
 • **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)
 09:00-22:00
 • **LOPEZ DE ARETXAGA**
 (TORRESOLO 4 - ABADIÑO)
ASTELEHENA, 22
 09:00-09:00
 • **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
MARTITZENA, 23
 09:00-09:00
 • **SAGASTIZABAL**
 (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
EGUAZTENA, 24
 09:00-09:00
 • **GAZTELUMENDI**

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria **94 681 09 49**
 Osakidetza **94 600 72 00**
 Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
 Bizkaibus **94 448 40 80**
 Pesa **902 10 12 10**
 Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
 Matiena **606 459 988**
 Durango Geltokia **94 681 10 01**
 Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
 J.L. Uriarte **670 402 002**
 I. Estebez **670 678 273**
 M. Galeano **670 409 330**
 Lurreta **94 620 15 65**
 Taxi auzunea **688 618 690**
 Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> EGURALDIA

5° 13° ZAPATUA 
7° 13° ASTELEHENA 

> UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
 Atxondo **94 682 10 09**
 Berriz **94 682 45 84**
 Durango **94603 00 00**
 Elorrio **94 658 27 12**
 Garai **94 681 63 93**
 Iurreta **94 620 12 00**
 Izurtza **94 681 35 48**
 Mallabia **943 17 14 61**
 Mañaria **94 681 89 98**
 Otxandio **945 45 00 20**
 Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

Abadiño **94 621 55 33**
 Berriz **94 682 40 36**
 Durango **94 603 00 00**
 Elorrio **94 682 02 18**
 Iurreta **94 620 08 88**

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA

Abadiño (Traña-Matiena)
 Eguaztenetan
 10:00etatik aurrera
Durango
 Zapatu goizetan
Zornotza
 Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga **0,80 euro**
 Letxuga haritz hostoa **1 euro**
 Azelga **2 euro/kg**
 Espinaka txorta **1,20 txorta**
 Berakatz freskoa **1,50 txorta**
 Ilarrak **6 euro/kg**
 Tomate kontserba **3,90 euro/potea**
 Arrautzak **3,80 euro/dz**
 Idiazabal gazta **17 euro/kg**
 Gari integraleko ogia **3,30 euro**



JATETXE GIDA

ÑAM!



NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO
Tel.: 94 620 39 10

Eguneko menua. Egurdietan: entsaladak, razioak eta plater konbinatuak
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.

ÑAM!



HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 94 682 40 77

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

“Asko gustatuko litzaidake bidaia programa batean lan egitea”

ETBko ‘Txapela buruan’ bidaia programan parte hartu du, European zehar Interraillez egindako bidaian



> AMAIA UGALDE
Otsailean hasi zuten bidaia. Beste hiru gazteagaz batera, Europako hainbat hiri bisitatu ditu Irati Alkortak, eta orain, lau astetan eman-
go dute ETB1en euren espe-
rientzia, ‘Txapela bu-
ruan’ saioan.

Hasieran ezezagun, eta azkenerako lagun bihurtu zarete bidai-
kideak?

Bai, azkenean hama-
bost egun oso inten-
tsuak izan dira. Eta
ez gu laurontzako
bakarrik, ekoizte-
teko langileekin
ere harreman han-
dia egin dugu. Gu
laurok eta beste lau
pertsona joan ga-
ra, eta denok bate-
ra ibiltzean, fami-
lia lako bat sortu
dugu.

**Eta kamararekin aurre-
ra eta atzera ibiltzearena, ze-
lan eroan duzu?**

Hasieran apur bat lotsatu-
ta, baina azken egunetan ja-
da, konturatu ere ez han dagoe-
nik. Eduki dugu gure espazioa
ere, e? Gauzak grabatu ditugu,
bai, baina denok batera egote-
ko momentuak ere eduki ditu-
gu. Ni behintzat, gustura egon
naiz, lasai, eta asko disfrutatu
dut. Amaieran, bueltatzeko pe-
nagaz. Agurra oso emozioan-
tea izan zen.

**Lau bidaiariok gida-lana txan-
dakatu duzue. Zer moduz lan
horretan?**

Ni azkena izan nintzen, eta on-
do. Ia entrenatuta moduan, bes-
teek zelan egin zuten ikusita.
Bidaia geralekuak erabaki-

ta zeuden, baina guk erabaki ge-
nuen bertan zer ikusi. Niri Bu-
dapest, Berna eta Lausana to-
katu zitzaizkidan, eta joan au-
rretik, informazioa bilatu nuen
etxean, hango euskaldunekin
harremanetan ipini nintzen...

**Kanpoan bizi diren euskaldune-
kin harremanetan ipini zarete ia
hiri guztietan...**

Bai, eta oso aberasgarria izan
da. Polonian, adibidez, euska-
ra ikasten zebiltzan poloniar
batzuekin egon ginen. Ikurrin
eta guzti etorri ziren gure bi-
la... Nik, hasieran, ez nekien po-
loniarrak zirenik, eta euskaraz
oso oso ondo hitz egiten zuten!
Filologia edo itzulpengintza edo
halako karrera batean euskara
aukeratu zuten, eta hona Eras-
musean etorritakoak ziren. Oso
emozionantea izan zen.

Zer hiri gustatu zaizu gehien?

Bakoitzak bere xarma dauka,
baina gehien gustatu zaidana
agian Berna da. Hango bizimo-
du estiloatik edo... Dena poli-
ta, garbi-garbi, ondo zainduta...
Pentsatu nuen: honek bai bizi di-
rela ondo! Gainera atez ateko za-
bor bilketa daukate, eta zakarre-
tarako poltsetan ere Berna jar-
tzen zuen, marrazki bategaz...
Zaborrena ere oso txukun zeuka-
ten ipinita.

**Zer moduzkoa da trena bidaia-
tzeko?**

Jende guztiari gomendatu-
ko nioke Interraillean joatea.
Ez dauka zertan ibilbide luzea
izan. Bertan lo egin dezakezu,
tren asko hartu ditzakezu pre-
zio ez oso altuan... Bidaiaitzeko
beste modu bat da, eta jende as-
ko ezagutzen duzu, asko gauza
bera egiten dabiltzalako; nor-
malean, jendea oso jatorra izat-
en da.

**Tren ordutegiek mugatuta,
denbora falta igarri duzu?**

Nahiko bidaia espresa izan da,
baina beno, uste dut gauza esan-
guratsuenak ikusi ditugula.
Gainera, han bizi diren euskal-
dunek erakutsi dizkiguten gau-
za asko, turista joanda, ez geni-
tuzke ikusiko.

**Lekuren batera bueltatzeko
gogoz geratu zara?**

Berlinera, beharbada. Gaueko
hango giroa ikusi gurako nu-
ke. Ez genuen aukera handirik
eduki. Giro mota asko daude:
taberna lasaiak, edo ez... Toki
kuriosoak daude, eta gustatu
zitzaidan. Arkitektonikoki, hi-
ria ez da oso polita, baina giroa
gustatu zitzaidan.

**Zuen artean ika-mika asko
izan dituzue?**

Azkenean, hamabost egunean
beti dago zer edo zer, baina ho-
ri beti egoten da, lagunekin ere
bai. Hasieran, agian ez hainbes-
te, baina azkenean, konfiantza
sortzen denean, beste gauza ba-
tzuk soltatzten dituzu, hasieran
isilduko zenituzkeenak.

**Ikus-entzunezko komunika-
zioa ikasten zbiltza. Zelan bi-
zi izan duzu telebistaren mun-
dua?**

Oso aberasgarria izan da ikus-
tea zelan funtzionatzen duen
horrelako programa batek, ka-
maren kontua, produktoreak
izaten duen lana... Ikasketez
aparte, beti interesatu izan zait
zelan egiten duten jakitea, eta
gainera, ikasitako gauza ba-
tzuk ere ikusi ditut. Bidaia pro-
gramak beti gustatu izan zaiz-
kit, eta beti pentsatu izan dut
gustatuko litzaidakeela horre-
lako programa batean lan egi-
tea, lan talde horietako baten
kide izatea...

LAUHORTZA

**MARISA
BARRENA**



Erronka berria

Durangoko Herria auzo elkar-
tea aspalditik ari da Saharako
herriarrei elkartasuna eskaini-
tzen. Ildo horretatik urteokaz
bi proiektutan ibili da murgil-
duta: oporrak bakean eta soli-
daritate karabanan. Aurtengo
udan, berriz, hirugarren erron-
ka bati ekingo dio, hain zuzen,
urritasun fisikoren bat duten
Saharako zortzi ume ekarriko
ditu gurera bi hilabeterako.

Oporrak bakean programari
esker, hainbat neska-mutil eto-
rri dira Durango eta ingurueta-
ko herrietara. Zortzitik hamabi
urtera bitarteko umeak izaten
dira. Bost uda igarotzen dituzte
ume horiek bertoko familiekin,
horrela elikadura, medikura bi-
sita, dentista, begien behaketa
eta abar luze bat jasotzen dute
umeok. Aurton ere, zabalik da-
go izena emateko epea. Zalan-
tza barik, harrera-familiaren-
tzat erantzukizuna eta ardura
da ume bat bost urtez hartzea,
baina merezi duen ekimena iru-
ditzen zait, nahiz eta kostat.

Karabana solidarioa ere el-
kartasun ekintza interesgarria
eta beharrezkoa da. Halere, ba-
tzuatan gure kontzientzia gar-
bitzeko modu bat delakoan na-
go, gure ekarpena egin eta kitto.
Jeneroa bidaltzearen kontra ez
nagoen arren, kritiko samarra
naizela aitortu behar dut. Uste
dut Saharan bertan zerbait
ekoiztearen aldeko proiektuak
ere sustatu beharko genituz-
keela, bestela gizarte pasibo eta
menpeko bat sortzen ari garela-
ko inpresioa daukat.

Aipatutako erronka berria,
hau da, urritasun fisikoren bat
duten umeak ekartzea, proiektu
potoloa da, duda barik. Bo-
rondateaz eta diruaz gain arlo
horretan adituak diren pertso-
nen laguntza eta gidaritzza beha-
rrezkotzat jotzen ditut. Dena
den Herriakoek euren egitekoa
behar bezala beteko duten za-
lantzarik ez daukat.

Solidaritatea ere krisian da-
goen garai honetan, betoz elkar-
tasun ekimenak, ahaztu barik
pertsonak aktibatze ekimenak
direla eraginkorrenak.



MARIO ZUBIAGA:
“EHU-KO POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO
ZIENTZIEN SAILEKO IRAKASLEA”

APIRILAK 23 19:00ETAN DURANGON SAN AGUSTIN KULTURGUNEAN

**SOLASALDIA DURANGO
ALDAKETAREN BIDEAN**





ROBERTO BERMEJO:
“EHU-KO EKONOMIA ETA ENPRESA
ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA”